



# ARGIA

Irudi hau  
ez du pertsona  
batek egin.

## ***Adimen artifiziala multinazionalen esku?***

24-29. orrialdeak

#2.816 | 2023/03/12 | 4,00 €



***Donostiako  
pisu turistikoaren  
problematika***

30 | AIRBNB EFEKTUA



***"Antifrankismoa  
Nafarroan ez zen  
identifikatzen  
Espainiaren ideiarekin"***

36 | IMANOL SATRUSTEGI



***Lanartea: Euskal  
sortzaileen aldarri  
eta gogoetak***

44 | KULTURA





# SENDABELAR BARATZEA

Garbiñe Larrearen liburu berria

Sendatzeko baratzea lantzeko proposamena egiten dizugu liburu biribil honekin.

Hasberrientzat zaintzen lan handirik emango ez diguten hamabi sendabelarren baliabide terapeutiko, kosmetiko eta gastronomikoak ekarri ditugu orri hauetara.

Izan ere, geure beharretara egokitzen diren sendabelarrak landuz gero, osasuntsu egoteko behar ditugun erremedioak presta ditzakegu.

Sendabelar baratzea lur sail batean zein etxeko lorontzian egin dezakegu.

**Orrialde kop.:** 40 **Neurria:** 22 cm (diametroa)

**Prezioa 14,00 €**

Bidalketa gastuak **5€**.  
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.  
Erosketak **BIZUM** bidez ordaindu daitezke.



## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO  
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ARGAZKIA: YULIYA KRAUTSEVICH / ALAMY

## Iritziak

- 19 | IRATI LABAIEN
- 20 | KATIXA DOLHARE
- 21 | MAIALEN ARTEAGA
- 21 | ITXARO BORDA
- 22 | IÑAKI MURUA

## Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:  
ANA GALARRAGA
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



### 36 | NAFARROAKO EZKER MUGIMENDU IRAULTZAILEEN HISTORIAZ

Imanol Satrustegi historialari gazteak Beste mundu bat nahi genuen liburua argitaratu du, bere tesian oinarrituta. Nafarroako 60-70eko hamarkadetako mugimendu ezkerreko iraultzaileak aztertu ditu, egun pilpilean diren hainbat egoera eta eztabaidari ekarpena egiten diotelakoan. Xubat Zubiriak egin dio elkarrizketa bizi hau.

## Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

### Garapena birpentsatu beharra: Lesothoko monolaborantzaren porrota

Nicolas Goñi

14 | PERTSONAIA | MCKENZIE WARK

### “Cis begiradak transexualitatea behar du bere burua egonkortzeko eta nabarmentzeko”

Danele Sarriugarte

24 | TEKNOLOGIA | ADIMEN ARTIFIZIALA

### Alternatibak eraikitzeko unea

Jon Torner

30 | GIZARTEA | AIRBNB DONOSTIAN

### Mugarik gabe hedatzen ari den negozioa

Lukas Barandiaran

36 | POLITIKA | IMANOL SATRUSTEGI

### “Liburu honek azaltzen du zergatik den Nafarroa kontserbadorea eta errebeldea aldi berean”

Xuban Zubiria

44 | KULTURA | ALDARRI ZAHARRAK BERRI

### Kultura prekariora da

Gorka Peñagarikano

#### Jabetza

Komunikazio Biziagoa  
S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea

#### Lehendakaria

Onintza Irureta

#### Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Irati Irazusta, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Leire Rodriguez, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

#### Diseinua

Maitane Gartzandia

#### Argazkilaria

Dani Blanco

#### Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

#### Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

#### Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

#### Banaketa

Olatz Korta

#### Azoka

Mikel Olabide

#### Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

#### Web garapena

Asier Iturralde

#### Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

#### Lege gordailua

SS 837-2012

#### ISSN

0213-909X

#### Batzorde parekidea

72562 E

#### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

#### Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus  
komunitatea@argia.eus

#### Telefona

943371545

#### Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

#### Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,  
31001 Iruñea

Ametzagaina taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:


  
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



  
software  
productions

## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egile eta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.


**OLATUKOOP**

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN  
SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA









# Giza abereak eta politika

El Salvadorko Gobernuaren propaganda-taldeak mundu osora zabaldtu ditu *pandillero* erdi biluzien irudiak, hiltegira doazen kabala gisa, Amerikako kartzelarik handienara bidean —40.000 presorentzat diseinatu—. “Ez dira berriro oinez aterako handik” esan du Justizia eta Segurtasun ministroak. Helburua begi-bistakoa da: Bukele presidenteari kriminalak jo-puntuak dituela sinetsaraztea, eta ez dagoela giza eskubiderik ezta legerik ere bera geldiaraziko duenik. Baina, espektakulu mediatiko lizun hori baino egun batzuk lehenago, AEBetako Justizia departamentuak jakitera eman zuen froga dezakeela Bukeleren gobernuak *pandillen* buruzagiekin negoziatu zituela etekin ekonomikoak, zigorren murrizketa, estradizio eskaerak bertan behera uztea, lege aldaketak eta hobari judizialak. Trukean haiek hilketak murriztu eta Bukeleren alderdia babestuko zuten hurrengo hauteskundeetan. Hau da, gobernuak bazkide izan ditu orain gizatasunik gabe aurkezten dituen pertsonak. Politika omen.



EL SALVADORKO LEHENDAKARITZAREN PRENTSA IDAZKARITZA



AXIER LOPEZ



# Ertzaintza egunero miaketak egiten ari da prestazio ekonomikoak eskatu dituen jendearen etxeetan

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

**D**iru Sarrerak Bermatzeko Errenta kobratzen hasi aurretik ere, prestazioa eskatu duen jendearen etxeak arakatzan ari da Ertzaintza: “Prebentzioaren izenean, egunero-egunero ari dira etxeetan sartzen; astakeria da eta jendea beldur da, modu oldarkorrean ari direlako, armairuak, arropak eta zoko guztiak miatzen, eta ez badiezu sartzen uzten, prestazioa ukatzen dizute”, azaldu dio ARGIAri Iñaki Uribarri Argilan-ESK-ko kideak.

“Lehen ere egiten zituzten ikuskapenak, arreta deitzen zuten kasuetan, baina orain etengabekoak dira; eta beste gauza bat ere aldatu da: lehen Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) kobratzen zuen jendearen etxeetan sartzen ziren, orain prestazioa kobratzen hasi aurretik ere, eskatu egin duen jendearen etxeetan sartzen dira, ez dira fio”, azaldu digu Uribarrik. Pentsio osagarriak eta enplegu pizgarriak jasotzen dituztenekin ere berdin jokatzan ari direla salatu du Berri Otxoak plataformak. Bi ertzain joaten dira etxeetara, kale-jantzian, eta herritar askoren testigantzak jasotzen ari dira Argilan-ESKn.

## ZERGATIK EGUNEROKO MIAKETA HAUEK?

Kanpaina bati erantzuten diola garbi dute batzuek eta besteek, “baina instituzioetatik ez da inongo azalpenik eman kanpaina honen inguruan, iruzur kasuak ez dira areagotu, beraz zergatik?”, dio Uribarrik. Bere esanetan, hainbatek zuzenean lotzen du gertatzen ari dena martxoaren 19an indarrean sartuko den DSBE lege berriarekin: lege berriak aurreikusten du Lanbideko langileek eurek osatutako 25 kideko ikuskaritza taldea egongo dela eta zereginen artean izango dutela etxeetan sartzea. “Batzuen arabera, entrenamendu moduko bat da hau, datorrenaren aurrekari, legea indarrean sartzen denean ez dezan berrikuntza itxurarik hartu”.

Lege berriak Aitorpen Arduratsua delakoa ere badakar: DSBE eskatzerakoan, Aitorpen Arduratsua dokumentua bete



ECUADOR ETXEA

**“DSBE jasotzen dutenak modu perbertsoan tratatzen dira, eta halako kanpainen bidez gizarteratzen den mezua da ‘kontrolak egiten badizkiete zerbaitengatik izango da’”**

beharko da, esanaz prestazioa jasotzeko baldintza guztiak betetzen direla, “baina hainbeste dira baldintzak, okerren bat egitea ohikoa dela, eta hemendik aurrera aitorpen hori egin eta baldintzaren bat ez betetzea zuzenean iruzur gisa joko dute”.

## POBREA IZATEA DELITU

Berri Otxoak plataforma garbi mintzatu da: “Pobreziaren kriminalizazio eta estigmatizazio kanpaina” baten aurrean gaude. Iñaki Uribarriren hitzetan, batzuekin eta besteekin neurgailu ezberdina erabiltzen dela agerikoa da: “DSBE jasotzen duen jendea, bere eskubidea izan arren, modu perbertsoan tratatzen zaio, eta prestazio ekonomiko hori jasotzen dutenen artean iruzurra %0,7koa baino ez den arren, halako kanpainen

bidez gizarteratzen den mezua da ‘kontrolak egiten badizkiete zerbaitengatik izango da’. Iruzur fiskala %20koa da, eta ikuskapen fiskal askoz gutxiago egiten da, ongi justifikatzen da gainera ikuskapen kasu bakoitza. Pobreia izatea delitu dela dirudi”.

## DATORREN LEGE BERRIA “SARRASKI HUTSA DA”

“Lege berriak baldintza batzuetan hobeakuntzak dakartza, baina iruzurraren kontrolari dagokionean, 2018ko legea baino okerragoa da, oso gogorra, datorkiguna sarraski hutsa da”, esan digu Uribarrik: “‘Dirua migratzaileei ematen diezue’ moduko mezu eskuindarrei erantzuteko EAJk duen modua da kontrola handitzea, baina azken finean eskuinari men egitea da, eskubideen eta justizia sozialaren kalterako. Pobreek ez dute bozkatzan eta jomuga erraza dira, gainera ez ditu inork defendatzen, ez dago kontzientzia sozialik”.

EAJtik harago, lege berria Eusko Jaur-laritzak Elkarrekin Podemos-IUekin adostu duela adierazi diogu Uribarri. “Elkarrekin-Podemosek lortu duena oso-oso gauza urria da, ez dute ezer inportanterik lortu eta asko irentsi behar izan dute -iritzi dio-. Denborarekin, ezkerreko alderdiak konturatu egingo dira, nik uste”. ●



## MATERIALISMO HISTERIKOA

## EZ HANKA EZ BURU

**ADUR LARREA**  
www.adurlarrea.com

# Ez-lodiok



UXUE APAOLAZA LARREA

**N**ire inguruan lodiak daude. Ni ez naiz bat. Lagun lodiak ditut (barre algarak). Eta ziur nago nire inguruko lodietako batzuen arazo nagusia horixe bera dela. Ez, ez, ez lodiak izatea. Ni beren laguna izatea baizik. Ni eta ez-lodi gehiago. Isilik egoten ez dakigunak. Eta HORRI buruz hitz egin egiten diegu, eta esaten diegunak ia beti eskatzen du zerbait beren partetik. Dieta bat ez bada, *ezdakitzeri* aurre egiteko indarra, edo guk ere eduki ditugun konplejoen zerrenda entzutea. Denok gara lodiak (berriro barreren bat). Gure intentzioa ona da, ona da estuasunak azkar pasatzea beti delako ona, alegia, horretara jarrita egoten dela gure asmoa.

“Loditasuna politizatzeko premia” azpimarratu zuten Lodi-fobiaren aurkako egunean. Eta sorpresaz harrapatu nau loditasun-tasek klasearekin duten loturari buruz irakurtzen. Arbuia-tzen dugun edozerk dauka zerikusia klasearekin, dirudienez. Nahiko frogatuta dago, komeni da gogoan izatea, baina, eta, nahiko eroso ere uzten gaitu, ez? Eta kasu honetan ere, nahiko garbi dago, klasearenak ez duela arbuio guztia azaltzen. Goya sarietako glamourrera ere irristatu zen gordofobia, emakume baten gainera: etxetik eder atera zena, alfonbran biluztu zuten, erridikulu egin zuten. Kamera ofizialen planoan sartzea zer amildegi izan daitekeen.

Emakumeak ziren lodifobiaren aurkako martxaren argazkietan ikusten zirenak. Martxoaren 8a badator, badoa... iraultza txikiz kargatuta. Eta horietako batzuek, ez-lodioi, entzutea eskatzen digute. Lagun hobeak izateko besterik ez bada. Eta entzun nahi ez bazenu, isildu behintzat. ●

NORMALITASUNA.



## EAJ

Osakidetzak 220 milioi euro bideratu ditu EAJko kargu ohien enpresetara, 2019 eta 2022 bitartean. EH Bilduk urtarillaren 18an egindako galderaren harira, Gotzone Sagardui Osasun sailburuak Osakidetzak harremana duen enpresa pribatuen inguruko informazioa eman du. Gipuzkoan egon dira diru-mugimendu handienak.

## Ate birakariak

SPRI agentziako zuzendari izatetik agentziarekin lotura zuen Eurocybar enpresa pribatura pasa zen Alexander Arriola, egun batetik bestera. Kasu horren harira, Etika Batzordea desegitea proposatu du EH Bilduk, “Jaurilaritzaren jarduera zurtzeko baino ez duelako balio”. Organo independente bat sortzea eskatu du.

## Martxoak 3

Milaka lagun batu zen joan den astean Gasteizko kaleetan, 1976ko martxoaren 3an hildako langileak oroitu, bizi-baldintzen okertzea salatu eta langile borroka aldarrikatzeko. Kalez jantzitako polizia ugariak tentsioak sortu zituzten, eta bi gazte atxilotu. “Azken urteetako poliziaren presentzia handienetarikoa” salatu zuten Gazte Blokeko kideek.



# Emakumeak gora!



AINHOA ETXAIDE  
AMORRORTU

**P**andemiak kolektiboki zenbateraino eragin gaituen sakonean aztertu gabe jarraitzen badugu ere, ez da gehiegizkoa "gureak" egin ditugun aldarrikapenak utzi dizkigula esatea. Horietako bat, zaintzak erdigunean jarri behar ditugula behingoz.

Zaintzaren auzia geroz eta zentralagoa da Euskal Herrian, zaintza krisiak horrela eskatzen duelako eta hori ekartzen duelako neurri batean; eta Euskal Herriko Mugimendu Feministari zaintza lanak, langileak eta zaintza antolatzeak ereduak eztabaidaren erdian kokatzeko egiten ari den ahalegina aitortu behar zaio, ezinbestean.

Mugimenduak erakutsi du ez duela "Zaintzak erdigunera!" aldarria edukirik gabeko diskurtso bihurtzen uzteko asmorik. Zaintza lanak kolektibizatzea, zaintza-lanaren balioa handitzea eta profesionalizatzea, zaintza-eredu emantzipatzailea eraikitzea aldarrikatu du aurturten: helburu bakoitzerako neurri zerrenda bat adostu eta plazaratu du. Azpimarratzekoa da, gainera, Martxoaren 8aren atzetik datorren dinamika baten baitan kokatzen duela hori, urrats berri bide emango dioten mobilizazioak izango direla iragarri baitu mugimendu feministak. Edukiak, Mugimendua, egiturak eta bidea. Ekimena eta kementa, aldarrikapen soil bat sakoneko aldaketak eragin ditzakeen borroka bihurtu dadin.

Tamalgarrria da Emakunde "Emakumeak gora!" esaten ari den bitartean, garbitzaileak ikustea lurretik eta Ertzaintzaren eskuetan kolpatuta. Tamalgarrria, auzia kristalezko sabaian kokatzea, zoru itsaskorra apurtzeko erantzukizun politikorik hartzen ez denean. Emakumeak gora, bai, zaintzaren ardura eta zama banatzen direnean. Lidergoak, bai, botere harremanak iraultzeari helburu duten borroketan. ●

## Erosi auto bat klimaren alde



**ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA**

**K**lima Aldaketaren Legeak behartzen ditu 50.000 biztanletik gorako hiriak Emisio Baxuko Zonaldeak izendatzera, eremu hauetatik kanpo utz ditzaten gehien kutsatzen duten automobilak. Trafikoaren Zuzendaritza Orokorrek autoei txartel bana emango die bere kutsakorkeria seinalatzeko, baina horretarako ez du auto bakoitzaren emisioa neurtuko, zuzenean autoaren adinaren arabera banatuko du: B txartela jasoko du 2000. urtearen ondoren matrikulatutako gasolina autoak eta 2006aren ondoren matrikulatutako diesel autoak. C txartela izango du 2006aren ondoren matrikulatutako gasolina autoak eta 2014aren ondoren matrikulatutako dieselak. ECO txartela izango dute auto hibridoak eta 0 emisioa duten auto elektrikoak. Autoen sailkapen honetan oinarrituta, hiri bakoitzak ezarri behar ditu bere irizpideak: mutur batean legoke hirigunearen oso eremu txiki bat "0 emisio" pegatinadunentzat soilik erreserbatzeko hautua egitea, eta beste muturrean eremu oso handi bat pegatina guztientzat izatea. Berez, aurtengo urtarrian ezarri behar zen indarrean Emisio Baxuko Zonaldea hiri guztietan, baina gehienak ez dira iritsi hala egitera. Hala ere, denbora gutxian Hego Euskal Herriko hirietan martxan egongo da.

Beraz, A etiketadunak ("etiketarik gabeak" deitzen zaizkien) hiriguneetatik kanpo geratzeko dira. Ez dira gutxi, egungo autoen %30 baino gehiago. Hauek dira gasolinaz dabilen eta 2000. urtea baino lehen matrikulatutakoak, edo dieselaz dabilen eta 2006. urtea baino lehen matrikulatutakoak. Guztioak gaude, noski, kutsadura gutxitzearen alde. Baina autoa arrakastaren ikur den gizarte kapitalistan, ez dirudi 20 urteko kotxeari eusten diona besteak izorratzeagatik dabilenik: berririk erosteko modurik ez duelako, baizik. Honela, kutsaduran onura bat bultzatzeko ezartzen den neurri itxuraz neutroak, klase sozialaren arabera esku-bideak mailakatzen ditu. Horretaz jabetuta, Bartzelonako Udalak hirigunerako sarbidea baimendu die errentarik baxuenak dituztenei.

Ez al dago hain justu mugikortasun aukerekin lotutako irizpiderik jartzerik, guztion artean hiri barneetako emisioak gutxitu ditzagun? Adibidez, bertan bizi direnek, elbarriek edo adin batetik gorako zaharrak eta adin batetik beherako umeak garraiatzen dituztenek sarbidea libre izatea, eta gainerako guztiek hainbat eremu ukatuta izatea?

Auto elektriko indibidualak ez omen dira irtenbidea krisi energetikoaren aurrean. Garraio publikoa sustatzea, auto partekatutakoak eta bestelako irtenbideak bilatu behar omen dira. Baina hara, kasualitatez-edo, auto indibidual berriagoen salmenta bultzatzen duten neurrietatik hasi gara. Arazoa autoak dira eta arazoa-ren irtenbidea beste auto bat erostea ote da? ●

# %6,1

zifrara igo da inflazioa otsailean Hego Euskal Herrian, eta azpiko inflazioa %7,7. Prezioen gorakada gelditzeko, interes tasak igo eta eskaria apaltzea da ordoliberalismoaren betiko guardasola.

# 90.000 milioi

euro irabazi zituen industria farmazeutikoak, diru publikoz finantzaturako COVID-19 txertoekin. Enpresek diru publikoa jaso zuten ikerketarako, eta iparraldeko herrialdeek aldeaz aurretik erosi zizkieten txertoak. Bitartean, txertoen prezioak igo egin zituzten multinazionalak.

# 28

urteko kartzela-zigorra berretsi du Gorenak Kote Cabezudo argazkilariaren aurka. Sexu izaerako hainbat eraso egitea egozten diote: abusua, bortxaketa, haur pornografia eta modeloei iruzur egitea.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Uliazpi Fundazioan 34 zaintzaile plaza betetzeko oposizioetan euskara eskatzea zilegi zela eta ez zela diskriminatzailea ebatzi zuen iaz Donostiako epaitegiak. Orain ebaspen hori bertan behera utzi du EAEko Auzitegi Nagusiak, langile publiko hauei euskara eskatzea “desproportzionatua” eta “diskriminatzailea” dela argudiatuz.

2023-01-01

*“Beste behin, Auzitegiak hizkuntza-politika egiteari ekin dio. Kasu honetan, gainera, jendarteko sektore zaurgarrienetako baten eskubideak dira urratzen direnak”*

**IDURRE ESKISABEL**

EUSKALGINTZAREN KONTSEILUKO  
IDAZKARI NAGUSIA



*“Uliazpiko erabiltzaileek jasotzen duten zerbitzua norbere hizkuntza aukera errespetatuz egin dadin bermatzeko irizpidea muturreraino eramango dugu eta helegitea jarriko dugu”*

**GARBIÑE MENDIZABAL**

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO HIZKUNTZA  
BERDINTASUNEN KONTSEILARIA



*“Zartada handia da gure administrazioek ezarritako hizkuntza-politikarentzat, baina, batez ere, gure hizkuntza-eskubideentzat”*

**ULIAZPIKO LANGILEAK**



## TEKNOLOGIA

## Neurtzeko moduak



DIANA FRANCO

**A**skotan teknologia eta berrikuntza bat izango balira bezala ulertzen ditugu. Teknologiaren izaera hain da, baina, zaharra. Teknologiaren ahizpa nagusia ezagutza da. Zientzia praktikatzeko teknologiak sortzen ditugu, zientziaren praktikak ezagutza dakar, ezagutzak, teknologia ezberdinak sortzeko aukerak... eta horrela joaten gara bizi dugun mundua ulertzen eta bertan eragiten. Eragite horretan gizakion baitan ditugun pasioak nahasten dira, eta emaitza ezinbestean zenbaitentzat onuragarria da eta beste batzuentzat aldiz ez.

Dugun gizartean, berrikuntza neurtzeko inpaktu adierazleak erabiltzen ditugu. Hau da, eragiteko ahalmena neurtzen dugu. Eragite hori modu askotakoa izan daiteke. Nire ustez, eta asko sinplifikatzen ari naizela jakinda, badaude inpaktu adierazleekin neurtzen diren bi helburu handi: etekina eta gizarte eraldaketa. Bi adierazle hauek txanpon beraren alde ezberdinak direla iruditzen zait. Etekinak lortzera bideratuta dauden jarduerak gizarteak eraldatzeko ahalmena dute. Eta gizartea eraldatzeko ahalmena duten jarduerak etekinak sortzeko ahalmena dute. Hori da, azken finean, berrikuntzaren ideia. Eta behar bada, teknologiak horretan duen papera dela-eta berritzaile direla ulertzen dugu.

Martxoaren 8aren bueltan, nire asteroko zutabea antzinako sorginei eskaini nahi diet. Sorkuntza ahalbidetze lanetan asmatu zituzten teknologia, zientzia eta ezagutzek banakako emakume askoren ongizatea ahalbidetu zutelako. Baina gure garaietako sorginei ere eskaini nahi diet, eta inpaktua neurtzeko hauek darabilten adierazle berritzaileari berdintasuna. ●

## NAZIOARTEA



## Hasi Afrika errespetatzen

AXIER LOPEZ

**E**uropak eta Frantziak tratatzen gaituen modua aldatu egin beharra dago, gu errespetatzen eta Afrika beste era batera ikusten hasi behar duzue. Guri tonu paternalistaz hitz egiteari eta zuzentzeari utzi behar diozue, zuek beti arrazoia bazenute bezala, eta geuk ez”.

Entzuleen txalo artean esan ditu hitzok Kongoko Errepublika Demokratikoko presidente Félix Tshisekedi-k, Kinshasa hiriburuan, alboan Frantziako presidente Emmanuel Macron zuela. Prentsaurreko bateratua zen, Macronek hilaren 2tik 5era Afrikako hainbat herrialdetan egin duen biraren harira.

Macron, deseroso, erantzuten saiatu zen esanez kazetari frantziar batzuek idazten edo esaten dutenak ez duela Frantzia ordezkatzeko. Eztabaida desbideratu nahian ari zela ikusita, ondorengo argitu zion Kongoko presidenteari: “Ez naiz inongo kazetariez ari, zure Atzerri ministro Le Drianen adierazpenez ari naiz”.

Jean-Yves Le Drian ministro ohiaren adierazpenez ari zen Kongoko presidentea. 2019ko hauteskundeetan Tshisekedi lortutako garaipenaren balorazio negatiboa egin zuen Le Drianek publikoki.

Frantziak bere kolonia ohietan –eta kontinente osoan oro har– gero eta eragin txikiagoa duela jakitun, Macronek biran erakusten saiatu den jarrera adei-

tsua ez da nahikoa izan kritikak saihesteko. Bere lehen geldialdian, Gabonen, manifestari andanak buruzagi frantziarren presentzia errefusatu zuen.

Frantziako neokolonialismoa ahultzen ari da Afrikan, eta horren erakusgarri da Afrikako hainbat gobernuak lortu dutela soldadu frantsesak herrialdetik kanpo bidaltzea, Malin, Afrika Erdiko Errepublikan edo Burkina Fason gertatu bezala. Hala eta guztiz ere, Frantziako ekonomiarekiko menpekotasuna indarrean da leku askotan; Afrikako zortzi herrialdek erabiltzen dute CFA frankoa moneta gisa eta Frantziako Armada ez da erabat kontinente-tik joan, adibidez Boli Kostan jarraitzen dute armen bitartez boterea ezartzen. Bien bitartean, Txina, batez ere, eta Errusia, beste neurri batean, indarra irabazten ari dira kontinentean, lehen-gaia kontrolatzen ari dira eta lehen Europako potentzia kolonialenak ziren espazioak eskuratzen.

Macronen ondorengo hitzak ere ez dira kongoar askoren gustukoak izan: “1994tik ez zarete gai izan zuen herrialdeko subiranotasun ekonomiko eta administratiboa eta segurtasuna berrezartzeko. Errealitatea da. Ez da beharrezkoa errudunak kanpoan bilatzea”. Macronek berak onartu du Afrika “lehia eremua” dela gaur egun, eta, beraz, Frantziako enpresei eskatu die “esnatzeko” eta “borrokan parte hartzeko”. ●

# Martxoak 8

FOKU / JAGOBA MANTEROLA

**EUSKAL HERRIA** / Aurten ere, emakumez eta aldarrikapenez bete dira Euskal Herriko kaleak, martxoaren 8aren bueltan. Besteak beste, zaintza sistema publiko baten beharra aldarrikatu du Mugimendu Feministak. Egun batzuk lehenago, Lilatoia lasterketa egin dute Donostian (irudian). 33. edizio honetan, 6.000 emakumek baino gehiagok hartu du parte, inoizko parte-hartzerik handiena.



## Kartzela

Bi preso hil dira Euskal Herriko espetxeetan, 24 orduko tartean. Otsailaren 28an, 22 urteko gazte bat hil zen Zaballan; presoak zigortuta zegoen modulo berezi batean, ustez telefono mugikor bat erabiltzeagatik. Hurrengo egunean 57 urteko preso bat hil zen Martutenen; presoak prebentiboki zegoen espetxean, epaitu gabe.

## Kale gorria

50 urteko gizon etxegabe baten gorpua aurkitu zuten otsailaren 28an, Hendaiaiko Kaneta portuan. "Kalean hainbat urtez bizi ondotik, higatua zen", adierazi dute herriko Atherbea elkartetik. Urtea hasi denetik, Euskal Herrian hil den bigarren pertsona etxegabea da. Lehenengoa Bilbon hil zen, urtarrila bukaeran.

## Mikel Martín

Uda aurretik diagnostikatu zioten gaixotasunagatik hil da joan den astean Mikel Martín Conde oreratarra, 70 urterekin. LGTBI aktibista historikoa eta EHGAren sortzaileetakoa izan zen.





# GARAPENA BIRPENTSATU BEHARRA ERAKUSTEN DIGU LESOTHOKO MONOLABORANTZAREN PORROTAK

Lesotho Estatua gaur egun munduko elikagai-laguntzaren mende dago. Lursail handiko monolaborantzaren porrotaren adibide esanguratsua da, konponbide baten hasiera bertako sortzaile batek garatu zuen arren. Garapenaren kontzeptua birpentsatzeko balio digu: industrializazioaren eta urbanizazioaren sinonimo ote da, edo elikadura burujabetzari eta ezagupenen partekatzeari toki gehiago egin beharko genieke?

 NICOLAS GOÑI

**L**esotho munduan gutien ezagutzen diren estatuetarikoa da. Hego Afrikaren barneko enklabea da, Maloti mendikatean kokatua. 30.000 km<sup>2</sup> eta bi milioi biztanle ditu, horien %80ak lehen sektorean lan egiten duela. Herri menditsua da, hain zuzen bere lurralde osoa 1.400 metrotik gora zabaltzen da. Bitxiki, Lesothoko klimak eta bazterrek Euskal Herriko isurialde Atlantikoa oroitarazten dute: bazter menditsu eta berdeak, klima ozeanikoa (ozeanoa urrun izan arren, eremu tropikaletako altitude handiko zonaldeetan ematen da ere), soroetan artoa nagusi eta abelzaintzan behiak. Gurean bezala, Erdi Aroan artatxikia hazten zuten, eta Ameriketatik ekarritako artoa bertako laborantzan integratuz joan ziren. Aldiz, gurean ez bezala, artoak ez du gosete arriskua urrunditu Lesothon, batez ere eurite ziklo aldakorrei ez baitzaie ongi egokitzen: behar duen euri maila izanez gero, artatxikia edo basartoa baino gehiago ematen du artoak –horregatik nagusitu zen gurean– aldiz lehortea pairatzean ekoizpena erortzen da, basar-toarekin alderatuz.

Hain zuzen, egoera horretan egon da Lesotho azken urteetan hainbat aldiz, eta 2021-2022 udan eurite gogorrek dituzte uztak kaltetu. Horren ondorioz, Lesothoarren %22 elikadura segurtasunez ez larrian bizi da eta elikaduraren zati

handi bat Nazio Batuen laguntza programatik dator. Lehorteez gain, lurzoruen higadura arazo larria da. Gainera, populazioaren osasun egoera ez da ona, hiesa dutenen proportzioa %25 eta %30ren artean izanik munduko bigarren tasarik handiena dute.

## MACHOBANE, LABORANTZAREN ZAHARBERRITZAILEA

Agronomian ikertu baino lehen James Machobane (1914-2007) idazle gisan ezaguna zen. Bere eleberri batean kontatu zuen haurtzaroan pairatu zuen gosea, eskolako zerriei jaurtiriko ogi zaharra ebastera bultzatu zuena. Bizipen horiek bultzatu zuten Mantsa Tlala (“Gosea Kanporatu”) izeneko laborantza eskola sortzera 1957an, ingelesan agintea ahultzen ari zen garaian. Hamahiru urtez garatu zuen sistemak hiru ardatz ditu: denbora eta espazioa hobeto erabiltzea, landare aniztasuna eta emankortasuna etxaldean bertan sortzea.

Ohartu zen artoaren monolaborantza urteko hilabete gutitan egiten zela eta gaitz nontzeko hilabeteetan lurra baliatu gabe zegoela. Gainera, arto lerroen arteko hutsuneak hobeto baliatzeko moduak ikertu zituen, baita sistemaren emankortasuna era jasangarrian hobetzeko modua ere, simaur eta egur errautsean oinarrituz. Sistema horretan, tipikoki udazkenean garia eta ilarrak ereiten dira, gero udabe-

rri hasieran patata, udan biltzeko. Udan elkarrekin hazten dira artoa, babarrunak, kuia, basartoa, aza edota zerba, eta kakahuetearen hurbileko landare bat. Horrez gain, etxe bakoitzean abere bat izatea aholkatzen zuten, haragiaz gain soberakinak baliatu eta simaurra ekoizteko.

Sistema hori bereziki laborari txiroenei bideratua zaie: lur saila ttikientzat egoia izateaz gain, ongarri sintetikorik edota makinari eosi ezin dituztenentzat pentsatua da. Horrez gain, Machobanek eta formatzen zituen laborariak “letsema” –jakintza auzolanez zabaltzea– praktikatzera bultzatzen zituen, eta bere formakuntzan ahalegin berezi bat egiten zuen emakume eta haurrengana. Bere sistema probatu duten laborariak hiru abantaila nagusi ikusten dituzte: azalerako produktibitate handiagoa (bortz kideko familia baten elikadura seguritatea bermatzeko hektarea erdi bat nahikoa da, ohizko sistemari aldez 1.2 hektarea behar dira); patatak saltzeko adina bildurik, irabazi bat lortu dezakete; eta urte lehorretan ere ekoizpen ona lortzen dute. Gainera, landare aniztasuna emendatuz etekinen gorabeherak leunagoak dira, nutrizio aldetik laborari horien egoera hobetzen da eta lurzoruen ezaugarri mikrobiologiko eta fisikoak hobetzen dira –klima aldaketari aurre egiteko gaitasuna emendatuz–.

Letla Mosenene agro-oihangintza ingeniariak dioenez, orokorrean emaku-

**ANIZTASUNA**

Machobaneren sistema landu duen laborari bat bere soroan 2015ean. Landare aniztasuna da sistema horren ardatzetariko bat.



CHRIS CONZ

mezkoak gizonezkoak baino interesatuagoak dira sistema horretan, bere ustez elikadura segurtasuna senezkoagoa zaialako, gizonezkoek aldiz makineria gehiago balioesten dutelako.

**PRAKTIKA ZABALTZEKO ZAILTASUNAK**

Emaitza baikor horietan oinarrituz, irudika dezakegu herrialde osora zabaldu dela Machobane sistema. Zoritzarrez ez da hala izan, nagusiki arrazoi politikoengatik. Administrazio kolonialaren pean izan arren Machobanek egindako lana eta lortzen zuen fama begi txarrez ikusten zituen independentzia lortu ondorengo Moshoeshe II erregearen inguruko lehen administrazioak. Horren

ondorioz 1966tik 1986ra Machobane isilpean bizi behar izan zen eta bere eskola itxi zuen. 1986an izandako estatu kolpearen ondotik, bere sistemaren inguruan probak egiten berriz hasi zen laborantza ministeritza, eta laster formakuntzak ere abiatu zituzten.

Alta, gaur egun Lesothoko laborantzan erabakiak bideratzen dituen ereduak artoaren monolaborantza izaten jarraitzen du: 3.000 laborari inguruk praktikatzen dute Machobane sistema, eta beraz milioi bat baino gehiagok ez. Arte telebista kateari emandako elkarrizketa batean Lits'oane laborantza ministroak argi azaldu zuen zein den bere ustez Lesothoko laborantzaren behar nagusia: ongari sintetikoak erosteko

ahalmena sustatzea. Machobane sistema ezagutzen duela eta baratzeentzat egokia iduritzen zaiola zioen, baina berea bezalako azalera handiko etxaldeetan ezin dela ongarririk gabe egin.

Herri baten garapenaren adierazlea izan ohi da laborari portzentaje txikia izatea, laborantza industrializatu den seinale delako. Aldiz, argi dago paradigma horrek Lesothon garapena baino gosea eta dependentzia sustatzen dituela, gehiago ere higadura eta lehortekak larritzen dituen klima aldaketarekin. Lesotho ikurritza *Khotso, Pula, Nala* da ("Bakea, Euria, Oparotasuna") eta hori betetzeko tresnak badaude, baldin eta ez badute eredu desegokiak bidean oztoporik ezartzen. ●



**ZINKUNEGI  
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

[www.zinkunegioptika.com](http://www.zinkunegioptika.com)





# McKenzie Wark

HIZKUNTZA BERRIEN BILA



## CIS BEGIRADAK TRANSEXUALITATEA BEHAR DU BERE BURUA EGONKORTZEKO ETA NABARMENTZEKO



Otsailaren hasiera Bilbon. McKenzie Wark idazle eta pentsalaria Berlinetik iritsi berria da –AEBetan bizi da berez–, eta Euskal Herrian bizpahiru egun pasa ostean Valentziara abiatuko da. Ez naiz harritu burua lanbrotuta daukala esan didanean. Hala eta guztiz ere, a zer argitasuna berea. Ederki azaldu dizkit cis begiradaren tranpak eta kapitalismoa baino are okerragoa izan litekeen informazio-bektorearen asimetriak; hori gutxi ez, eta elkarrizketa amaitzerako New Yorkeko *rave* trans queerrak ezagutzeko pronto nago.



DANELE SARRIUGARTE MOCHALES



DANI BLANCO

**Bulegoa z/b-k gonbidatuta etorri zara Euskal Herrira, V. Topaketa: Erakusketaren saioa (1977-2017) sinposioaren harira. Bi ekitaldi eskainiko dituzu jendaurrean. Atzo [otsailaren 7an] idazketa-lantegi bat eman zenuen Bulegoan bertan: “Trans idazkera munduaren amaieran”. Zer moduz joan zen?**  
Azkenean 60 lagun inguru bildu ziren, eta ez zen izan nik nahi nukeen moduko lantegi bat, baina ederra izan zen jende hori dena ezagutzea. Arte bisualei buruz jardun ginen batez ere.

**Berez zer aztertu nahi zenuen lantegian?**

Emakume transen idazketa garaikideari buruz aritu nahi nuen, eta ikusi zer estrategia dauzkaten eskura trans emakumeek bestelako istorio bat kontatzeko.

**Izan ere, zure iritziz trans bizipenei buruzko kontakizun estandar bat nagusitzen da oro har. Nolakoa da kontakizun hori?**

Kontakizun estandar horrek elementu jakin batzuk finkatzen ditu: betidanik jakin behar izan duzu transa zarela; gorputz okerrean jaio zinen eta, orain, medikuntza

modernoaren mirariei esker, emakume edo gizon bihur zaitezke. Kontua da mundu guztiaren bititza ez dela horrelakoa. Eta kontakizun hori bakarrik edukitzea kaltegarria da trans jendearentzat, ez delako guztiona. Cis jendeak espero duen kontaktuzuna da, ez guri lagungarria izango zaiguna.

**Azken batean gorputz okerraren kontakizun horrek genero-binarismoa indartzen du.**

Genero-binarismoa indartzen duen edo ez, hori cis jendearen arazoa da, ez nirea. Guk gure bititza bizi nahi dugu, inongo generorik gabe.







# McKenzie Wark

NEWCASTLE, AUSTRALIA, 1961



Idazlea eta ikertzailea. Kultur ikasketen eta informazio-teknologiaren arloko irakaslea da New Yorkeko New School for Social Research unibertsitatean. Hacker kontrakulturaren aitzindarietako bat izan zen, eta orobat idatzi du antropozenoari, situazionismoari, queer identitateei eta teoria politiko postmarxistari buruz. 2017an genero-trantsizioa egin zuen. Elkarriketan haren liburua batzuk aipatu ditugu, baina ez nuke ahaztu nahi Kathy Acker idazleari buruz kaleratu berri duen lana: *Philosophy for Spiders: On the Low Theory of Kathy Acker* [Filosofia armiarmentzat: Kathy Ackerren behe-teoriari buruz].

**Lantegiaren izenburuaren bigarren zatiak arreta eman dit. Munduaren amaieran gaude?**

Trans askapena une txar samarrean iritsi da, kontuan hartzen badugu beharbada ezin izango ditugula eskubide zibil eta sozial guztiak eskuratu zibilizazioa —ezagutzen dugun eran— pikutara joan aurretik. Itxura eskasa du. Klima-aldaketa bizkortzen ari da, uste zutena baino gehiago. Baita etorkizun handirik ez izatea guretzat... Ikuspegi pesimista samarra da, baina uste dut lagungarria dela errealista izatea. Gainera, trans jendea etorkizunarekiko ikuspegi handirik gabe bizi izan da luzaro, beraz agian zerbait ikas genezake hortik. Ikas genezake nola bizi orainean eta nola ez utzi gauzak beti goroko.

**Gaur arratsaldean [otsailaren 8an] Bilboko Azkuna Zentroan hitzaldi bat eskainiko duzu trans begiradaren ifrentzuaz: cis begiradari erreparatuko diozu. Nola deskribatuko zenuke cis begirada?**

Bi alderdi ditu. Batetik, trans izaerak liluratzen du —batzuetan ironikoki—; bestetik, susmagarria iruditzen zaio. Trans izaera anomaliatzat jotzen du, cistasuna berresten duen anomaliatzat. Cis begiradak transexualitatea behar du bere burua egonkortzeko eta nabarmentzeko, transengan proiektatzen du genero-transgresioaren arazoa. Eta hori arriskutsua da, izan ere, transak, cis begiradaren arabera, bi gauza izan gaitezke: sexuliluraren objektua edo mehatxua. Eta bi aukerak kaltegarriak dira, mutur batetik bestera bizkor pasatzen baikara. Zaila da egitura hori desegitea. Trans jendeari ez digute uzten arruntak izaten, cis begiradak horixe galarrazi nahi izaten digu.

**Zer iritzi duzu emakume transak baztertzen dituen korrante feministari buruz?**

Feminismoa da, ala faxismoa da? Dei diezaigun faxismoa, horixe baita; gainera, munduko bazter honetan ondotoxo ezagutzen duzue faxismoa. Gure gorputzen gaineko kontrola estatuen esku utzi nahi duen feminismoak ez du zentzurik. Feminismoaren aldarrikapen giltzarrietako bat gorputzaren gaineko autonomia da, beraz ez diezaiegun izena oparitu.

**Reverse cowgirl [Cowgirl alderantzikatu] liburua aurkeztzen zabilta. Bertan kontatzen duzunak ez du bat egiten trans identitateari buruzko narrazio estandarrarekin.**

Ez da kontakizun posible bakarra, baina bertsio alternatibo bat izan liteke, geuretzat hizkuntza berri bat eraikitzen hasteko.

**Agian oker nabil, baina liburu hau apur bat desberdina iruditzen zait zure aurreko lan teorikoagoen aldean.**

Luzaroan ibili naiz liburu hau idatzi nahian. Egia da ezagunagoak direla nire lan teorikoak, baina saiakerak eta ez-fikziozko bestelako lanak ere idatzi izan ditut. Edonola ere, iruditzen zitzaidan jada ez nintzela gai halako subjektu ez-markatu baten posiziotik idazteko, eta beraz, ni neu jarri nintzen testuan. Bestalde, ez nuen identitate ziur batetik hitz egin nahi, nor naizen jakingo banu bezala. Beraz, subjektu bat edo identitate bat izatearen ideia zer ezegonkorra den islatzen da liburuan.

**Zer-nolako harrera izan du?**

Konfinamenduaren justu aurretik kaleratu zen ingelesez. Ez nuen elkarriketarik ez aurkezpenik egin, baina ahoz ahokoaren bidez zabaltzen ari da, eta orain itzulpenak aurkeztzen gabiltza. Jende askok bere burua topatu du liburuan, transa izan gabe ere.

**Niri halaxe gertatu zait.**

Liburuak aukera eskaintzen du sexualitateak norbere bizitzan duen lekua aztertzeko, eta arretaz begiratzen die gutako askok drogen eta sexuaren inguruan izan ditugun muturreko esperientziei. Norbere sorlekua uzteari buruzko liburu bat ere bada; era askotako hari-muturrak aurkitu dituzte irakurleek. Liburua bere bidea egiten ari da, eta horixe da liburu bati opa dakioken onena.

**Aipatu behar da garai historiko bat eta leku geografiko bat ere kontatzen dituzula: “Garai probintzial bat zen, hiri probintzial batean”, diozu liburuan.**

Bai, altzairu- eta ikatz-hiri batean jaio nintzen [Newcastle, Australia]; garaian 200.000 biztanle inguru bizi ginen han. Uste dut jende askok alde egin behar izan duela halako lekue-



tatik, hazi ahal izateko. Nik, orduan, ez nekien transa nintzenik, baina ondotoxonekien handik ospa egin beharra nuela bai ala bai.

Bestalde, komunikabideei dagokienez ere, belaunaldi jakin baten historia da. Gure belaunaldia telebistaren eta bini loen abaroan hazi zen, eta horrek zer pentsatua ematen du gaur egungo sare sozialek duten eraginari buruz, beste komunikabide batzuek beste belaunaldi bat nola taxutu zuten aztertzen badugu.

**Oraintxe esan duzunez, garaian ez zenekien transa zinenik, eta liburuan ere agertzen da ideia hori: “Orduan ez geneukan izenik guretzat”. Izendatzea onerako da beti, ala aho biko ezpata izan daiteke?**

Beharbada gaur egun asko tematzen gara gauza bakoitzari bere izenez deitzen, 60 harrotasun-bandera dauz-kagu gutxi gorabehera, eta ondo dago. Jendeak behar du hori. Dena ezin da hizkuntzarekin konpondu, baina lagungarria da hizkuntza hori edukitzea; guk ez geneukan arrastorik ere. Nik neuk mespretxuzko hitzak bakarrik neuzkan nire burua izendatzeko, edo mespretxuzko-

tzat jotzen genituenak behintzat, eta ez zigun batere lagundu. Ez zigun lagundu transexualitatearen eta homosexualitatearen arteko aldeak ezagutzen, esperientzia-modu askotarikoak ulertzen...

**Australiarra zara, baina New Yorken bizi zara aspaldi.**

Bai, 20 urte daramatzat han. New York-eko batekin maitemindu nintzen, eta horregatik migratu nuen. Ez neukan horretarako asmorik, baina...



**Emakume transak baztertzen dituen korrante feminista... Feminismoa da, ala faxismoa da? Dei diezaiogun faxismoa, horixe baita”**

**Aldaketa handia izango zen.**

Bai, hutsetik hasi behar izan nuen berriro. Hogeita hamaluze urte neuzkan migratu nuen, eta nire lan-ibilbide osoa Australian egina nuen.

**Unibertsitateko irakaslea zinen.**

Bai, eta bide akademikoari berrekin behar izan nion AEBetan, apur bat berandu. Baina, hara, New Yorken bizitzeko aukera izan dut.

**Pozik zaude?**

61 urte ditut orain. Eta adin horretan pentsatzen duzu: hauxe da egin dudana. Baina bizitza ona izan da, bai.

**Hitz egin dezagun *Reverse cowgirl*-en aurretik argitaratu zenuen liburuari buruz: *Capital is dead. Is this something worse?* [Kapitala hil da. Hau okerragoa al da?]. Esadazu zuk zeuk: bizi dugun fase historiko hau kapitalismoa baino okerragoa al da?**

Duela mende eta erdiko hizkuntza darabilgu oraindik, ezer aldatu ez balitz bezala, eta kapitalismoa esentzia aldagaitz bat balitz bezala. Baina, eta hau okerragoa balitz, zer? Demagun klase nagusi berri bat dagoela, eta eskulana ez ezik informazioa eta soziazialitatea ere ustiatzen dituela. Kasu horretan, beharbada kontzeptu berriak behar ditugu. Kapitalismoa baliagarria da oraindik ere munduaren puska handi bat deskribatzeko, baina beharbada kapitalismoaren gainean beste zerbait dago orain, are okerragoa. Nola pentsatuko dugu horretaz? Hizkuntza berri bat behar dugu.

**Izan ere, guri buruzko informazio pila bat oparitzen diegu enpresa handiei, ohartu gabe ere.**

Agintarien klaseak asmatu du gure lana ez ezik gure ez-lana ere ustiatzen. Telefono mugikorra patrikan duzula hara-hona ibiltze hutsak datuak sortzen ditu auskalo zenbat enpresarentzat, denok eta denbora guztian sinatzen ditugun erabilera-akordio txiki horien poderioz. Akordio horien bidez informazio mordo



bat ematea onartzen dugu, eta trukean papurrak besterik ez ditugu jasotzen. Beraz, lanaren ustiaketaren gainean, informazioaren asimetria bat dago.

**Gai horren harira Shoshanna Zuboff-en liburu bat irakurri nuen, *The Age of Surveillance Capitalism* [Zelataritza-kapitalismoaren aroa]. Zer iruditzen zaizu haren proposamena?**

Zuboffen liburua oso lagungarria da, baina beste guztiek bezala egiten du: adjektibo bat gehitzen dio kapitalismoari, eta aurrera. Kapitalismoa da, beste zapore batekin. Berritot: uste dut hobe dela hizkuntza berri bat topatzea, ideia zaharrenekin bueltara ibili ordez.

**Zuk, adibidez, "klase bektoralista" deritzon kontzeptua proposatu duzu. Azalduko zeniguke?**

Kapitalismoa zer da? Ekoizpen-baliabideen jabetza. Gaur egun horri gehitzen zaiona informazioaren bektorea da. Ezagutzen ditugun enpresa handi pila batek ez dituzte beren salgaiak ekoizten. Ez dut esango zer markakoa den hemen mahai gainean daukazu telefonoa, baina esan dezaket gailua

bera ez duela marka horrek ekoizti, nahiz eta marka horren logoa agertzen den gailuaren atzealdean. Gailua beste kapitalista batzuek ekoizti dute, beste nonbait.

Horrenbestez, kapitalisten klasea existitzen da oraindik, baina gero beste klase hau dago, bektoralisten klasea deitu dudana hori, zeinak kapitalistak menderatzen baititu eta are okerragoa baita. Pentsatuko dugu horren inguruan, mesedez? Oraindik ere XIX. mendean egongo bagina bezala jardun ordez? Marxek bapore-makinen garaian idatzi zuen. Baina bapore-makinarik ikusten al duzu hemen inguruan?

**Hacker manifestua argitaratu zenuen orain dela 20 urte. Klase bektoralistaren aurrean hackertzat hartu behar genuke gure burua?**

Zergatik ez? Nola deitzen zaio informazio berria sortu arren horren jabe ez den klaseari, hau da guri? Zer gara gu? Informazio hori sortzea lana da zentzu batean, baina ez da fabrikako lana bezalakoa, desberdin kudeatzen da, desberdin ustiutzen. Informazio-asimetriaren bidez ustiutzen da, hain zuzen ere.

Azter dezagun liburuen adibidea bera: eskubideak ordaintzen dizkirate, baina argitaletxea da berez liburuaren jabea, hark irabazten du gehien, eta banatzaileak zer esanik ez. Zertan datza lan hori, eredu industrial klasikoa bezalakoa ez dena?

**Amaitu aurretik, azken galdera: beste proiekturik duzu eskuarte?**

Ingelese argitaratuko dudana hurrengo liburua Raving deitzen da. Izan ere, 58 urterekin techno musika dantzatzen hasi naiz berriro, goizeko ordu txikitik. Badira zenbait urte ekin niola, eta azkenean proiektu txiki bat jaio da hortik, New York hiriko rave kultura trans eta queer aztertzen dituen.

**Zer ekarri dizu praktika horrek?**

Ezkutaleku moduko bat da guretzat, badakizu: mundua gaizki doa, baina goza dezagun tarte hau elkarrekin. Bestalde, uste dut bizipen kolektibo gisa baduela baliorik, azken batean hainbat ordu igarotzen baititugu telefonotik at. Beraz, hori izango da hurrengo argitalpena. Eta oso pozik nago elkarriketa hau euskaraz kaleratuko delako. Eskerrik asko. ●



Jaso etxean bertan zientziari eta teknologiari buruz jakin nahi duzun guztia

**elhuyar**  
aldizkaria

**HARPIDETU!**



## Zilarrezkoak omen



IRATI LABAIEN EGIGUREN  
EHU-KO IRAKASLEA

**B**oomer belaunaldi deritzonak populazioaren piramidea buruz behera jarriko duela diote aurreikuspenek. Bizi-itxaropenaren luzapena dela eta, 1949-1968 urteen artean izandako jaiotza-tasa altuek piramidearen goialdea borobilduko omen dute datozen urteotan. Duela hilabete inguru argitaratu zuen Nazio Batuen Erakundeak (NBE) *Munduko Txosten Soziala*. Dokumentu horrek islatzen ditu inguruan ikusten dugun populazio-dinamiken errealtatea mundura estrapolatzen dituzten datuak. Ezer berririk ez. Datozen hiru hamarkadetan, besteak beste, pertsona nagusien (hots, 65 urtetik gorako lagunen) kopurua bikoiztu egingo dela dio, 2021ean 761 milioi izatetik 2050ean 1.600 milioi izateraino. Esperotako gisan, prozesu horretan lehenak izango diren eskualdeak Australia eta Zeelanda Berria, Europa eta Ipar Amerika, eta Asia ekialdea eta hego-ekialdea izango omen dira. Afrika eta Asia mendebaldean gazteen proportzioa oraindik ere handiagoa izango omen da mende honen amaieran.

Gure testuinguru hurbilean arreta jarritz gero, jakina da, aurreikuspen honek osasun edota zaintzarekin loturiko erronkak handituko dituela, besteak beste. Nolabait, espero da adineko pertsonen behar eta motibazioei eta horien familia eta zaintzaileen beharritaneien erantzuna ematera bideratutako jarduerak ekonomikoaren gorakada, hots, *silver economy* edo zilarrezko ekonomia de-

Zalantza dut  
banketxe pribatuen  
lehentasunen artean  
ote dagoen adineko  
pertsonen oinarritzko  
eskubideen babesa

lakoak. Hainbatek etorkizuneko eredu berri horietara egokitzeko ekintzailetzaren beharraz hitz egin ohi du. *Bezero* berri horien inguruko merkatu-ikerketak egokiak lortu, eta ondoren, negozio eredu berriak definitu eta martxan jartzeko. Testuinguru demografiko berriak, gizalegez, ekonomiaren eraldaketa eskatzen du, zalantzarik gabe, gure etxea eta etxe-koen kudeaketaren aldaketa, alegia. Bai sektore pribatutik, bai publikotik.

Hainbatetan, ordea, gizalegeak eta kapitalaren legeak ez dute bat egiten. Aurrez aipaturiko NBEren txostenaren arabera, populazioaren nagusitze prozesua aurreratua dagoen lurraldeetan gastu publikoaren jasangarritasunaren inguruan kezka dago, bereziki, osasunarekin eta pentsioekin erlazionaturikoen inguruan. Kurioski, pentsioekin erlazionatutako hamaika proposamenen artean, zergen bidez finantzatutako pentsio-planak sendotzearekin batera,

aurrezki pribatua sustatzearen beharra ere azpimarratzen du.

Txostenetik azpimarratu nahi izan ditudan ondorioetatik bi hausnarketa datozkit burura. Lehen, gastu publikoak suposatzen duen guztitik, kezka erakoa non dagoen ikustea, beste behin ere. Pentsioen afera, ez da inoiz gainerako gastuen gisan jorratzen, eta bere jasangarritasunaren inguruko zalantza erabat normalizatua dugu. Are gehiago, onartu egiten dugu. Eta bigarrena, gai zehatz honekiko erantzun gisa publikotik zein pribatutik etor daitezkeen alternatibak parekatzea da. Zalantza dut banketxe pribatuen lehentasunen artean ote dagoen adineko pertsonen oinarritzko eskubideen babesa. Babes hori merkatu finantzarioaren menpe uztea arriskutsua izan daiteke.

Juan Torres ekonomialariak dioten moduan, merkatua bera da gehienetan aberatsen eta txiroen arteko desparekotasunak handitzearen arduradun. Miren Etxezarreta ekonomialariak ere argi azaltzen duen moduan, pentsioek gainerako eskubide sozialen parekoak izan beharko lukete, eta herrialdeko aurrekontuek bere egin. Nik ez dut zalantzarik: hainbatetan gizarte honek bezero, gastu, oztopo edota ezindu moduan tratatu izan duen *boomer* belaunaldia, zaintzaile, finantza sostengu, isileko langile eta egun ditugun eskubideen lorpenen garaile da. Ez darama zilarrezko domina zintzilik, urrezkoa baizik. ●



# Izualdia



**KATI DOLHARE-ZALDUNBIDE**  
LITERATUR ZALEA

ANTTON OLARIAGA

Joan den astean, berri izugarria hedatu da hedabide guzietan: Donibane Lohizuneko Tomas Akinokoa lizeo ospetsuko ikasle batek bere gatzelerako irakaslea hil du ganibeta kolpe batez, arrazoirik gabe. Ikasle hori, dakigunez, hezkuntzaz axola duen familiatik dator, beharretan ez den jendarretik, eskola-emaizta onak ditu, eta ez omen zuen sekula hitzik izan irakasle horrekin; nehoiz ez zuen arrangura berezirik sortu bere inguruan, ordu arte. Jakin denaren arabera, bozak entzun dituzke bere baitan, eta haiei gaina ezin harturik, klasean zelarik, bat-batean zutitu eta deus ez erran gabe, irakaslearengana hurbildu da eta labana toraxean sartu dio.

Gertakari ikaragarri hori denetan zabaldu dute tokiko eta Frantziako berriketariek, eta azkarki jo ditu Iparraldeko irakasle-ikasleak; nola ez? Ezerk ez zukeen pentsaraziko horrelakorik gerta zitekeenik, ez ikaslearen profil sozialak, ez ikastetxearen giro lasaiak. Biharamunean, beraz, eraiketa basa hori baizik ez zen aipagai irakasle geletan eta klaseetan, aspalitik hor dagoen gaizki izatea areagotuz. Alabaina, jestu hark, eta ondotik irakasle eta ikasle arteko solasek, argiki erakutsi dute gazteria psikologi-

koki gaizki dela, eta sistema eskolarrean ez dezakeela laguntzarik atzeman, baliabide eskasengatik.

Egunero, hedabideek katastrofe etsigarriak burrustan isurtzen dizkigute burutik beheiti, etengabe errepikatuz: geldiezineko aldaketa klimatikoa, miseria eta barbaria erakarriko dituen; gerla; jende xehearen pobretzea... Horrez gain, etxeko kezkak eta burasoen estresa jasaten dute, eta eskolan, etengabe presiopean dabilta. Aipatu gabe COVID-19 eta etxe-zokoratze garai latzaren ondorio moral eta afektiboak, orain agertzen ari direnak, bereziki nerabeengan. Ez da harritzekoa gazte anitzek ez badu bere burua etorkizun hurbilean ere proiektatzen ahal, ez badio lanari eta elkar bizitzari zentzurik ematen, ez bada manera orekatuan zohitzen, gogotik zozotzen bada kontsumerismoan eta hutsalkerietan, pozoierreal zein birtualen hautua egiten badu, eta gehiegikerietara lerratzen bada.

Irakasleek ahal dutena egiten dute gazteen hezteko, entzuteko, laguntzeko. Baina ahalbiderik ez dute, eta izu orokorrak irensten ditu beren ekintza entseguak.

Berriki segitu dut formakuntza akademiko bat, irakasle gisa. Edukia inte-

resgarria zen, baina ikastaldiaren abiapuntua desesperagarria iruditu zait: zailtasunetan diren ikasleak gero eta gehiago ditugu; zailtasun horiek gero eta handiagoak dira; gobernuak prestatzen digun erreforma berriaren ondorioz, ahalmen urriko ikasleak besteekin nahasiak izanen ditugu klasean, irakasleok formakuntza berezirik erdietsi gabe, eta laguntzailerik gabe; buraso frankok mespretxatzen du gure lana; ikasleek ez dute gehiago indarrik egiteko gogorik; ondorioz, nola transmititu jakitate apur bat, nola hezi gazteria eta zer irakatsi?

*Irakasle zoriontsu batek mundua alda lezake*, dio liburu baten izenburuak (Thich Nhat Hanh, Katherine Weare, Belfond, 2018). Bizkitartean, badirudi mundua okertzen ari dela. Pentsatzekoa da ez dela irakasle uros anitzik, edo erranaldia gezurrezkoa dela.

Bizkitartean, munduan ez bada, bere klaseko gazteriarengan eragin dezake irakasleak; baina irakasleak ez ezik, aita eta ama ere bai; eta inguruko profesionalak; eta herrikideak. Elkarren arteko sostenguan aurki dezakegu aterabidea, menturaz, eta ez bakarka; elkarri konfiantza eginez eta izua gure bihotza bihurtzeko utzi gabe. ●



**MAIALEN ARTEAGA**  
KAZETARIA

## Bizitzeko modu bat

**G**aur errazagoa omen da munduaren amaiera irudikatzea patriarkatuaren eta kapitalismoaren amaiera imajinatzea baino. Hori irakurri nien, beste gauza askoren artean, Eraitz Saezi eta Lur Albizuri *Gureak ere badira, desira, boterea, epika* liburuan, eta egia da. Espektatiben krisi kolektiboak bizi ditugun garaiotan, gure belaunaldiarentzat iraultzailea da beste mundu posible batean sinistea, beste Euskal Herri bat badela irudikatzea. Are gehiago, etorkizuneko Euskal Herri hori ez dagoela gure zain, baizik eta gaur guk egiten dugunak determinatuko duela hein handi batean biharkoa, bagarela subjektu aktibo, parean duguna eraldatzeko. Agertoki horren testuinguruan bete ditu Ernaik hamar urte; aitortza egin eta ospatzeko momentua da.

Eszenatoki horren antagonismo gisa, milaka gazte elkartuko gara apirilaren 6tik 9ra Elorrion, aurtengo Gazte Topagunean. Etsipen kolektibo horren anomalia da, egitaraua posible egiteko atzean gertatzen den guztiagatik eta lau egun horietan gorpuzten denak duen balio politikoagatik. Gazte topagune, danbada, akelarre zein martxak ehunka gazteren konpromiso militantez antolatzen ditugu. Auzolanean eta modu auto-gestionatuan; geure eskuekin ehundu, geure eskuekin josi eta geure eskuekin

eraiki. Maitasunetik, baina errebeldiatik ere bai. Utopiak hatz puntekin ukitzetik, baina amestetik ere bai. Kontrabotere-tik, baina boteretik ere bai. Kritikatik, eta autokritikatik ere bai. Deseraikitze-ko, eta beste asko eraikitze-ko ere bai.

Izugarria da utopikoak diruditen egun horietatik nolako harremanak loratzen diren, nola bertan politizatzen ditugun hainbat kontuk azkura eragiten diguten, geure buruak edo ingurua zailantzan jarri eta eraldatzeraino. Amesten dugun Euskal Herri aske, sozialista eta feminista posible denaren adibide praktiko eta kolektibo da, elkar zaintza eta indar komunitarioa zutabe dituen, Euskal Herri hobe baten ortzimuga marrazten duena, hezur-haragizatzen duena. Egun horietan gertatzen den guztia ez litzateke posible izango atzean dau-den esku eta lan izugarriagatik izango ez balitz. Arrazoia dugu: elkarrekin posible da. Neoliberalismoarentzat mehatxu gara, espektatiben greba mugagabe honetan, eskirolak. Sistema patriarkal eta kapitalistak ez digu sekula disidente izatea barkatuko.

Amesten dugun etorkizuna posible den ideia bera, bizitzeko modu bat da. Geroa gaurdanik, orain, hemen, guk, elkarrekin eraikitzea posible den ideia bizitzeko modu bat da; batu bizitzeko modu honetara. ●

## Beltzuriz



**ITXARO BORDA**  
IDAZLEA

XX. mendetik hitzen beldur larri batekin atera gara. Ez gara gehiago menturatzen gauzak izendatzera, dena zirkunboluzio, metafora eta eufemismo gabiltza errealitatearen latza leundu nahi bagenu bezala: Elkanok ez zuen Portugaleko erregearen ametsa partekatzen eta engoitik herritar beltz ustez subalternoa "arrazializatzen" ditugu. Espezie humanoan arrazarik ez dago eta zehaztu direlarik shoah-ren, apartheidaren edo segregazioaren bar-bariara bultzatu zuten lur osoa.

Erran behar dut zimiko bat eragiten didala, hainbat lagunek "beltz" hitza

ahoskatu nahi ez eta beltzak "arrazializatuak" direla diotelarik. Mihiaren harilka hori gainera komentatzaile zuriek dauka-te, 2020an George Floyd erail zuteneko protestetan "black lives matter" aldarrikatzen baitzuten hiritar beltzek. Batzue-tan, iruditzen zait arraza kontzeptuaren esnatze berri honek neokolonialismo kutsu bat duela, larrua zuri dutenek beren burua "arrazializatutzat" ez daukatelako. Eta, urrunago joanez, ez ote da, arrazare-na seinalatuz, beltz bat edo, bere balizko "arrazan egokitzen"?

Beti bestea da "arrazializatu" ... ●



# Ez aitua egin!



IÑAKI MURUA  
BERTSOLARIA

**M**akina bat bileratan izan dut eta, seguru asko, zuek ere bai, egun zelebrea dugulako irudipena. Guk esandakoa inork ez du aintzat hartzen, eta esan dugun hori bera beste batek –guk baino pisu handiagoko arrazoiak bota ohi dituenak– gure hitz berberak erabiliz esan, eta nola arrainak amuari halaxe heltzen dio mundu guztiak. Autoestimua hankapera doakigu eta gehienok, tristeziaren menpe, burumakur amaitzen dugu eguna edo jarduna edo dena delakoa. Zergatik du hark halako itzala eta nik hain eskasa? Komunikazio gaitasun dohatsuagoa daukalako ala, liderra izanik, berak dioenari aurka egitea ez delako ongi ikusten?

Gazteago ginenean, etxean honela esaten zitzaigun: "Besteen moduan ibili zu ere edo ez ibili besterik ez bezala!". Desberdinari beldur diogu, baina denok amen-amen egiteari izua izan behar genioke. Arrazoiak bota eta behin eta berriz berriak sortzen ari den hari, gazetarik ekin eta entrenatzen, egurrean dabilenari, ez aitua egitea ez zaio kome-

Arrazoiak bota eta  
behin eta berriz  
berriak sortzen ari den  
hari ez aitua egitea  
ez zaio komeni gure  
gizarteari

ni gure gizarteari. Bai, badakigu ez dela batere eroso taldean, koadrilan, gelan... baina zentzuz ari dena bada, aitu soilik ez, entzun ere egitea komeni zaigu.

Uste dut, ordea, gizarteak ez daramala bide egokia *aitu* eta *entzun* kontuetan. Interesak ditu gure bizitzan hariak mugitzen ari denak eta teknologia eskura merke edo doan jarri digunak. Oporretan ere gurasoak segapotoari beha, eta seme-alabarik badute inguruan, baita haiek ere. Gero zentzuzkoak izatea nahi

dugu, arrazoiak lantzen dutenak, baina ontzi hutsak izateko entrenatzen ditugu, zenbat eta hutsago ontzia, orduan eta ozenago adierazten du ezereza. Ontzi hutsa maldan behera bueltaka botatzen dugunean bezala, zarata galanta, besterik ezer ez!

Nire ustez, ondorio latzak ekarriko dizkigu honek, luze gabe, gainera. Maiztzean hauteskundeak eta udalak zain baina zerrendan zein? Auzolana nork egingo du, Eusko Jaurlaritzak, "Euskadi auzolana" medioetan errepikatuz? Zenbat lanpostu sortuko dira pertsonentzat eta zenbat robotentzat? Zenbat pertsona robotizatuko ditugu? Makinak eta robotak lanean jartzea ondo iruditzen zait, baina zertan eta nork erabiliko ditu etekinak? Gazteak izango al du bizipozik, tratu duinik, nork entzunik, ala ez aitua egiten segi behar dugu? Eta indarra duenean boterea eskuratzen badu deskuiduan, Turkiako lurrikararen antzekoa mundu osoak jasango al du? Zenbat Kroazia eta Errusia izango dira etorkizunean... ●

bertako  
igogailuak | ascensores

-rekin BAI!

OROTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei



GIPUZKOA  
943 903 450

BIZKAIA  
946 523 935

ARABA  
945 712 822


NAFARROA  
848 870 917

www.bertako.eus

 **ARGIA**ren

# multimedia kanala

Euskarazko ikus-entzunezkoen  
biltegiarik handiena



**2.300 bideo baino gehiago ikusgai**

Erreportajeak, film laburrak,  
dokumentalak, solasaldiak...

 **[argia.eus/multimedia](https://argia.eus/multimedia)**



## ADIMEN ARTIFIZIALA

# Alternatibak eraikitzeke unea

Galdera mordoa dago erantzuteke bazterrak astintzera etorri den adimen artifizialaren inguruan. Enpresa pribatuen eskutik, abiadura bizian ari da garatzen teknologia, eta arriskua dago instituzio publikoak eta herritarrak jokoz kanpo geratzeko, hainbat adituk ohartarazi duenez. 2023an itzelezko aurrerapenak ikusiko omen ditugu, baina ez dirudi lau haizetara iragarri duten “iraultzaren” ufadaz erabat kontziente garenik. Izango al gara gai erraldoien itzalpetik atera eta alternatibak garatzeko?

 JON TORNER ZABALA

**A**dimen Artifizialari buruzko dozenaka albiste publikatzen da egunero hedabideetan, gaiak sortzen duen jakin-min, zirrara, kezka, beldur edo dena delako sentipenaren erakusgarri. Ilustrazio ikusgarriak amen batean sortzen dituzten programak, erantzun geroz eta zehatzagoak ematen dituen ChatGPT sistema, hura garatu duen OpenAI konpainiaren jarduna –zeinaren fundatzaileetako bat Elon Musk enpresaria den, eta inbertitzaile nagusietakoa Microsoft–, Microsoft beraren eta Google enpresaren arteko “gerra irekia”, gerra “pribatu” horretan instituzio publikoek izan behar-ko luketen esku-hartzea, algoritmoak

elikatzen dituzten datu masiboen erabilera, proiektu alternatiboek egin dezaket bidea burujabetza teknologikoa helburu, euskara bezalako hizkuntza minorizatuek izango duten tokia... baita etika, moralak, justizia, egia eta gisako kontzeptuekin lotutako auzi filosofikoak ere, itaun potolo bat akuilu: sortuko ditugu, noizbait, beren kasa pentsatu eta gizakion morrontzatik askatzeko gai izango diren makina adimentsuak?

Zientoka dira erantzuteke dauden galderak, abian den “iraultzak” noraino eramango gaituen inork ez baitaki ziur. Iritsiko da eguna makina bati eskatu ahal izango dioguna: “Idatzi adimen artifizialaz 15.000 karaktereko erreportajea, haren kudeaketa pribatu vs

Big Dataekin sekulako jauzia eman du adimen artifizialak. “Datuak dira eman ahal diogun elikagairik onena”, esan digu Ane Iturzaeta informatikariak. “Pentsa, esaterako, etxea domotikoki konektatua duen pertsona bat zenbat datu ematen ari zaien auskalo nori bere zaletasun (musika, irratsaioak...) eta ohituren inguruan (noiz pizten duen berogailua, noiz garbigailua...). Kontziente izan behar dugu horretaz”.

publikoa erdigunean jarrita, aditu honen eta haren iritziak tartekatuta eta ukitu didaktiko baina idazkera arinarekin”. Bitartean, informazio zaparrada antolatzen saiatuko gara. Itzalpean, gaiak pintzelada interesgarriak eman dizkigute Iñaki Alegria EHUKo Ixa ikerketa-taldeko kideak eta Gorka Julio software garatzaileak, baliagarri izan zaizkigunak Microsofteko informatikari Ane Iturzaeta eta EHUKo irakasle Xabier Barandiarani egindako elkarrizketak fintzeko.





JENSENARTOFFICIAL / PIXABAY

Funtsean, adimen artifiziala litzateke ahalmen konputazional izugarri handiko ordenagailuak milioika daturekin elikatu (Big Data), algoritmoen bitartez datuok prozesatu eta patroiak identifikatu ostean ondorioak ateratzea edo "erabakiak hartzea" zein "gauzatzea", mundu digitalean edo, gorputz robotiko baten bidez, fisikoan. Herritar moduan bereziki beldurtzen gaitu horrek, pribatutasun edota jabetza eskubideekin lotutakoek baino gehiago. Giza formako robotak baitira, gure imaginarioan, adi-

men artifiziala gorpuzten dutenak, mugikorrean bertan ere txertaturik dagoen arren, argazkiak editatzeko aplikazioetan eta beste zenbaitetan.

Azkar ikasten dute makinek, gizakiak baino bizkorrago. Haren laguntza behar dute, ordea, emaitza ahalik eta fidagarriena lortzeko entrenatu ditzan. Esaterako, konpainia teknologiko erraldaien sarean jausi ez eta modelo propioa garatzea posible dela erakutsi duen adibide bat jartzearen: euskarazko itzultzaile neuronalek (adimen artifizialaren espa-

rruko *machine learning* diziplina oinarri dutenek, Itzuli-k eta Elia-k esaterako), hanka-sartzeak egingo zituzten hasieran; baina erroreak leuntzea lortu da pertsonen egindako zuzenketak medio, ahaztu gabe ahalmen konputazionala eta corpusa geroz eta zabalagoak direla.

Corpusa aipatu dugu, datu-base linguistikoa. Ingeles, gaztelania eta frantsesezkoak handiak dira euskarazkoarekin alderatuta, noski, baina etengabe aberastu dezakegu, ez soilik OpenAI konpainiak garatu duen ChatGPT eta enpresa



handien esku dauden bestetzetan, baita haien alternatiba diren edo izan nahi duten ekimen libreetan ere. Horietako bat da OpenAssistant proiektua, doakoa eta kode irekiko software gisa garatua, Sustatu.eus-en irakurri dugunez (*OpenAssistant txat adimentsua euskaraz trebatzeko aukera*, 2023-02-23). Beñat Erezuma irakasle eta Zientzia-Teknologia aholkulariak dio proiektu horretan kolaboratu beharko genukeela: "Euskara momentu honetan 10. hizkuntzarik entrenatuena da, baina urrun dago lehen hizkuntzetatik. Txatetan oinarritutako laguntzaile horren kalitatea hobetzeko funtsezkoa da gizakiok harekin lan egitea, eredia hobetze aldera". Ekimenari buruzko informazio gehiago Twitterreko @aaeuskaraz kontuan kontsulta daiteke, Open Assistant euskaraz entrenatzen ari diren erabiltzaileek sortua.

## IREKIA ETA GUZTION EZAGUTZAK ABERASTUA

Wikipedia entziklopedia jarri digu adibidetzat Xabier Barandiaran EHuko Filosofia saileko irakasle, neurozientzia kognitiboaren esparruko ikerlariak, esan digu baliabideak multinazional gutxi batzuek kudeatzeak kezkatzen duela gehien, "jakinduria globala pribatizatzea lekarkeelako".

Adimen artifizial batek egin badezake ez bakarrik liburu baten laburpen miragarri bat baizik eta hari buruzko galdera guztiak zehaztasunez erantzun, edo obraren jarraipen original bat garatu, zer gertatuko da egile eskubideekin?

Software askearen definizio eta lizentzia juridikoei zor die izana Wikipediak. Publikatutakoa librea da, edonork du eskuragarri eta zabaltzeko deza, lizentzia bera mantenduz gero. Azpiegitura eta edukia eraiki ziren jabetza intelektualaren formatik kanpo, eta beste ekimen askorentzat izan da akuilu. "Bada, ezarriko dituzten arauen arabera, agian ez dugu Wikipedia moduko



MONICA DEL VALLE / FOKU

Xabier Barandiaranek, EHuko Filosofia saileko irakasle eta neurozientzia kognitiboaren esparruko ikerlariak, esan digu baliabideak multinazional gutxi batzuek kudeatzeak kezkatzen duela gehien, "jakinduria globala pribatizatzea lekarkeelako".

Adimen artifizial batek egin badezake ez bakarrik liburu baten laburpen miragarri bat baizik eta hari buruzko galdera guztiak zehaztasunez erantzun, edo obraren jarraipen original bat garatu, zer gertatuko da egile eskubideekin?

Software askearen definizio eta lizentzia juridikoei zor die izana Wikipediak. Publikatutakoa librea da, edonork du eskuragarri eta zabaltzeko deza, lizentzia bera mantenduz gero. Azpiegitura eta edukia eraiki ziren jabetza intelektualaren formatik kanpo, eta beste ekimen askorentzat izan da akuilu. "Bada, ezarriko dituzten arauen arabera, agian ez dugu Wikipedia moduko

adimen artifizial komun eta irekia egiteko aukerarik izango", dio Barandiaranek. "Azpiegitura, baimen eskatzea, corpusen bilketa eta kalitatea, hura erabiltzeko gaitasun juridiko eta tekniko... noren esku ari gara uzten hori guztia?". Baliabide handiak behar direla aintzat hartuta, multinazional gutxi batzuek kudeatzeak kezkatzen du bereziki EHuko irakaslea, jakinduria globala pribatizatzea lekarkeelako: "Publikoa izan beharko luke, komuna, halakoxea baita jatorrian". Izan ere, norena da librearen datuetatik (Wikipediatik-eta) elikatzen diren adimen artifizialek sortutako edukia? Adimen Artifizial batek egin badezake ez bakarrik liburu baten laburpen miragarri bat baizik eta hari buruzko galdera guztiak zehaztasunez erantzun, edo obraren jarraipen original bat garatu, zer gertatuko da egile eskubideekin? Galderak galderen gainean.

Bada zalantza-iturri gehiago, adimen artifizialaren entrenamenduarekin lotutakoak kasu. Hainbat adituk homogeneizazioaren arriskuaz ohartarazi du, azken finean, makinak trebatzea –erantzun "egokiak" emateko– enpresa gutxi batzuen esku geratzen baldin bada haien pentsaera nagusitu daitekeelako, haien "egia", zeinak, dena den, arazo "berria" baino, arazoaren "sakontzea" dakarren gehiago. Esaterako, adimen artifizialak garatu edota erabiltzen di-



Ane Iturzaeta informatikari beasaindarrak Microsoft enpresan egiten du lan. Azaldu digu Bing bilatzailean adimen artifiziala txertatu dutela, ChatGPT medio, eta bilatzaileen ohiko jarduna –hitz gakoak erabiltzea– irauliko duela horrek, lengoaia naturala baliatu ahal izango dugulako eduki zehatza topatzeko –link edo iturriak baino gehiago–.

tuzten pertsona edo entitateak (ai-reportuetako segurtasun-agentek edota polizia, adibidez) arrazistak baldin badira, makinek nola jokatu-ko dute? Nork kontrolatuko du hori? Hari horri tiraka, Barandiaranek dio adimen artifizialaren fidagarritasuna ez dela sekula %100 izango, baina gizakion artean ere ez dagoela inor erabat fidagarria: “Neurtu beharko da non huts egiten duen, justiziaren bermerik ba ote dagoen, etikoa al den... Denbora berean, gizakion natura azaleratuko du prozesu horrek, makinari ‘erakusten’ ari garen bitartean ikusiko dugulako guk non huts egiten dugun, zertan hobetu dezakegun...”.

## ALGORITMOA, HANDIEN SEKRETUA

Ane Iturzaeta Agirre informatikari beasaindarrak Microsoft enpresan egiten du lan, Data&AI taldeko *customer engineer* edo hodeiko arkitekto moduan. Adimen artifizialaren esparruko aditua, EHuko Informatika Fakultateak eta PuntuEUS Fundazioak antolatu eta alor digitaleko emakumezko profesionalen alde egitea xede duen Gladys Saria irabazi zuen 2021ean. “Nik ez diot nire algoritmoa gobernu bati entregatuko, nire sekretua da”, esan digu. “Gar-

dentasuna bermatuko dut, azalduko dut adimen artifiziala nola iritsi den zehaztasun-maila konkretuak lortzera edota zeintzuk diren emaitzan eragin duten faktoreak, baina ez dut emango nire formula, IP edo jabetza intelektuala. Guztiaz eztabaida daiteke ordea, nik neuk ere baditut kontraesanak, dena hain azkar doa...”.

OpenAI enpresan milioika dolar inbertitu du Microsoftek, Google eta gainerako lehiakideak alboratzeko helburuarekin: “Egiaz, Microsoftek edota Googlek adimen artifizialaren esparruan aurkeztu dituzten aurrerapen gehienak ikerkuntzaren esparruko enpresa txikiagoek egin dituzte, unibertsitateen bueltakoak asko”, azaldu digu Iturzaetak. “Erraldoi horiek zer egin duten? Enpresa xumeagok bereganatu, eurek ez dutelako horrenbesteko gaitasunik, teknologiaren beste arlo batzuetan ari baitira bereziki lanean. Egia da, bai, Microsoft zein Googlek dezenteko monopolioa dute”.

Informatikari beasaindarrak ere hitz egin digu itzultzaile neuronalaz. “Itzuli baino hoberik ez du inork lortu, ezta Microsoftek ere. Txikitik, komunitatetik sortzen dena hobea izan daitekeela ikusi dugu. OpenAI bera ere lau lagunek eratu zuten, nahiz eta ostean handiak jan”.

## GIZA EZAGUTZAREN ORDEZKOAK

Adimen artifizialak denbora laburrean iraultza handia ekarriko du ez soilik irudi edo testu sortuntzan, baita lanbide ugaritan ere, datu digitalizatu asko dauden sektoreetan bereziki: justizia, informatika, irakaskuntza, kazetaritza, medikuntza, automobilgintza... eta urrats bat aurrerago joan ohi diren “segurtasun” edo espioitzaren esparruetan. “Lehen, makinek ordezkatzen bazituzten muskuluak, orain ordezkatzen dute giza ezagutza”, dio Paul Krugman ekonomialari eta Nobel saridunak.

Osasungintzan, adibidez, gaixotasunak aurrez detektatzen lagun dezake, bildutako datu mordoak analizatu eta patroiak aurkituta. Microsofteko informatikari Ane Iturzaetak esan digu EAEko hainbat ospitaletan adimen artifiziala erabiltzen ari direla, “zentro pribatuetan gehiago, medio handiagoak dituzten heinean”. Madrileko publikoan ere baliatu zuten pandemia garaian, zein pazientek ingresatu behar zuten erabakitzeke, hainbeste gaixorentzako oherik ez zegoenez ezinbestekoa baitzen “aukeraketa” egitea. Hezkuntzan, software pribatuak hozkada ederra eman duen esparruan, adimen artifizialak aldaketak ekarriko ditu ezinbestean, ebaluazio-sistemetan esaterako. Nola bermatu ikasleak ez duela hura baliatu? Dena den, zentzuzkoa al da adimen artifizialaren erabilera debekatzea, etorkizunean lan-tresna izango badute? Debekatu ala, aitzitik, ikasketa-prozesuan txertatzea da onena? Adibidez, ikasleei eskatu ahal zaie ChatGPT-ren aurka ariketa bat egin eta haren akatsak zuzentzeko. Halaber, neska-mutikoen jarraipen pertsonalizatua egiteko ere balia daiteke adimen artifiziala.

Lanpostuak desagertuko ote diren? Ziurrenik bai, baina Gorka Juliok esan digun moduan, ez dugu ahaztu behar gizakiok makina eraginkor eta merkeagoak garela etorkizunean eraiki ditzakegunak baino, “ogitarteko batekin nahikoa dugu lan-jardun osoa irauteko”. Eginbehar batzuk, sozialki prestigio gutxien dutenak (zaintza, garbiketa, banaketa...), gizaki batek merke eta eraginkorrago beteko ditu robot batek baino.



## DATUAK, ELIKAGAIK ONENA

Big Dataekin sekulako jauzia eman du adimen artifizialak, Iturzaetak azaldu digunez: “Datuak dira eman ahal diogun elikagairik onena. Pentsa, esaterako, etxea domotikoki konektatua duen pertsona bat zenbat datu ematen ari zaion auskalo nori bere zaletasun (musika, irratsaioak...) eta ohituren inguruan (noiz pizten duen berogailua, noiz garbigailua...). Kontziente izan behar dugu horretaz. Zara-ren webguneko baldintzak onartzean jakitun al gara datuok nahieran erabiliko dituela Inditexek? Etxean Alexa laguntzaile birtuala dutenek kontratua irakurri al dute? Badakite Amazonek zer egingo duen bildutako informazioarekin?”.

OpenAI enpresarekin hartu-emanean diharduen Microsofteko langileetako bat da Iturzaeta. Azaldu digu 2021era arteko datuak –“Interneten publikoa zen guztia”– prozesatu dituztela, eta bi urteotan hura erabiltzen hasi diren geroz eta pertsona gehiagoren jarduna batu zaiola horri, ondoren aipatzeko zein den bere ustez 2023ak ekarriko duen iraultzarik handiena: adimen artifizial generatiboa. Jada ez da soilik prediktiboa, jakitea ea noiz piztu-


“Erakunde publikoek badakite zer datorren, baina beste alde batera begiratzen dute maiz, arautzeak ekarriko liekeen lanagatik agian”

## ANE ITURZAETA


ko dugun etxeko berogailua, baizik eta gauza zehatzak eskatu ahal zaizkiola, erreportaje bat idaztea kasu. “Erantzukizun handiagoa dakar berarekin”, esan digu informatikariak: “OpenAI-k modelo piloa egin du milioika daturen gainean. Zeuk galdera egin eta erantzun egingo dizute. Microsoftek egin duena da erabat askeak diren modelo horiek –‘hau da daki-

dana eta halaxe botako dizut’– apur bat erregulatzea”. Zentzu horretan, OpenAI-ren zerbitzuak kontratatzen dituen enpresak aukera du erabilera are gehiago erregulatzeke. Adibidez, zuzendaritzak hala erabakiz gero, langileek adimen artifizialari galdetzen diotenean zein den alderdi politikorik onena, makinak esango die ezinezkoa zaiola erantzutea. “Adimen artifizial generatiboan kontzeptu inportanteenetakoa da ia-ia beti pertsona batek egon behar duela errebisatzen, balioztatzen eta beharrezkoa balitz modifikatzen”, dio Iturzaetak: “Demagun enpresako bezeroei gutuna bidali behar diezuela hau eta beste konstatzen; makinak prozesua bizkortuko du, baina bidali aurretik balioztatu egin behar da”.

OpenAI konpainiaren zerbitzuak baliatu nahi dituen enpresak argi adierazi behar du –eta prozesu “nahiko gogai-karria” da, Iturzaetaren hitzetan– zein erabilera emango dion, zer datu erabiliko dituen... “Microsoft horraino hel daiteke”. Norbaitek ez badu hitzartutakoa betetzen, inork zigortzekotan, erakunde publikoek egin beharko luketela dio: “Adibidez, zure etxeko domotika-datuak, ahal dira erabili zuri laguntzeko, detektatzeko gaixo-edo jartzen ari zaren... Hori ona da, baina zer gertatuko litzateke inork erabiltzen baditu zure



Open Assistant txatetan oinarritutako laguntzailean parte hartzera deitu dituzte euskal hiztunak, corpora aberastu eta euskaraz ere trebatzeko. Zientoka lagunek probatu duten Open AI enpresaren ChatGPT sistema eta gisakoen alternatiba izan nahi dute kode irekiko software gisa garatutako proiektuok, "hein batean mugimendu tekno-politikotzat har daitezkeenak", Barandiaranen hitzetan.





OpenAI-rentzat lan egiten duen Sama enpresak, Kenyako langileak kontratatu zituen adimen artifiziala testatzeko. Egunean 1-2 dolar arteko soldaten truke, langileok dozenaka mila testu zatiren datuak etiketatzen aritu ziren, *Times* aldizkariak urtarrilaren 18an azaleratu zuenez. Testu horietako asko “sareko zokorik ilunenetatik” ateratakoa zela zirudien, Gorka Juliok idatzi zuen bezala *Berrian* plazaratutako Turko mekanikoa artikuluan: haurren sexu abusua, zoofilia, hilketak, suizidioa, tortura, autolesioak... “Inork egin nahi ez dituen lanek balioko dute tresna hauek dituzten arazo etikoak saihesteko”. OpenAI-k baieztatu zuen langile horiek testu eta irudi “kaltegarriak” sailkatu eta filtratzen aritu zirela, datuetatik ezabatzeko ahalik eta indarkeria- eta sexu- zantzu gehien. Goiko argazkia *Times*-ek sortu du Dall-E 2 erabilita.

argindar-faktura bere interesetara egokitzeko? Etikoa litzateke? Erakunde publikoek behar dute arautu enpresa pribatuen jarduna, datuekin zer egin dezaketen eta zer ez. Horretan dabilta, baina ez da erraza”.

### **BOTEREA, MODU ASIMETRIKOAN BANATUTA**

EHUko irakasle Xabier Barandiaranen hitzetan, gaiaren inguruan ez dago benetako gardentasunik. “Adimen artifiziala kudeatzeko ahalmena oso modu asimetrikoan dago banatuta, enpresa gutxi batzuek sekulako boterea duten bitartean, herritarren gehiengoak eta, are, administrazio publikoek ez dute indarrik”. Adibidez, aditu gehienak bat datoz esatean adimen artifizialak aldaketa handiak eragingo dituen lanbideetako batzuk justiziaren eremukoak direla, makinak gai izango direlako txosten (epai, helegite...) ikaragarri luze asko eta horietatik eratorritako datuak ti-ta batean prozesatzeko, zeinak gerta daitekeena aurreikusten eta prozesu judizial bakoitzean nondik jo erabakitzen lagunduko duen. Nork izango ditu ordea tresna horiek eskura? Abo-katu-bulego handiek bezala norbanakoek ere bai?

## **TEKNOLOGIA, PASIBOTIK AKTIBORA**

Adimen artifizialak gizarte osoan eragingo du, Internetek bezala. Bada jauzi handi bat, ordea. Nolabait esateko, teknologia “pasibo” batetik –edo “instrumentu” hutsetik– “aktibora” igarotzea. Adibide baten bidez azaldu digu Xabier Barandiaranek: “Telebistan uneoro ari zaigu jendea hizketan, gosaltzen ari garen bitartean mezuak helarazten, baina nahi dugunean itzali dezakegu, eta gainera hizketan ari zaizkigunak ez dira ohartzen zer gosaltzen ari garen. Sortzen ari den teknologia, aldiz, eragilea da, ahalmena du gauzak egiteko. Kezkagarria da, konpetentzia gehiago duelako eta beraz jendartearen eragiteko indar handiagoa”. Boterea izango du iritzi publikoa aldatzeko, milaka kontu faltsu baliatuta hauteskunde kanpaina erraldoiak egiteko, diskurtso politikoak idatziko ditu...

Gida-lerroak nork markatuko lituzkeen galdetuta, Barandiaranek erantzun digu ez duela ikusten ez gaitasun ez debate publikorik: “Europako gobernuak ari dira gaiaren inguruan, baina enpresa pribatuek presio handia egiten dute eta... Herritarren paperez ere hitz egin beharko genuke. Pentsa dezagun zenbat bider inposatu dizkigun Europak araudiak, gehienok ez genuelako haien berri eta ados ere ez geundelako, adibidez kanpo-zorra ordaintzeko legeen kasuan. Egia da ez dela Europa izango erregulazio mingarriena jarriko duena, pribatutasunean adibidez aitzindari da, baina demokrazia batean gizarteak hartu behar du lidergoa”.

Ane Iturzaetak kontatu digu adimen artifizial generatiboaz hitzaldiak ematen dituenean instituzioetan edota enpresetan, beti egiten dizkiotela galderak pribatutasunaz. “Oraindik ikasten ari gara. 2023a urte potentea izango da, teknologiak jada zapaldu egin gaitu, eta arauak jartzea dago-kigu orain”. Esparru guztietan izango du eragina adimen artifizialak, eta zertan bilakatuko den erabakitzea denon ardura dela dio Barandiaranek, galdera handiak txikiek ere erantzun ditzaten. ●



## AIRBNB DONOSTIAN

# Mugarik gabe hedatzen ari den negozioia


Turismoa Donostiako aurreneko sektore ekonomikoa bilakatu da azken urteetan, nahiz eta pandemiak kolokan jarri zuen. Eraldatzen ari da hiriko espazioa eta bizilagunek harekin dituzten bizi loturak. Fenomenoaren garrantziaz jakitun, Haritik Hirira geografo taldeak ikerketa sakona plazaratu du alokairu turistikoaren sektorean jaun eta jabe den Airbnb multinazioanalari buruz. Datu bat aurreratuko dugu: Donostian gaua igaro eta gosariagatik 203 euro ordaindu behar ziren batez beste iaz. Prezio hori Paris, New York edo Bartzelonako batezbestekoa baino garestiagoa da.


 LUKAS BARANDIARAN SAN ROMAN

**P**andemia garaian momentu batez bazirudien alokairu turistikoak behea joko zuela, eta hainbat hilabetez edo urtez ireki ezinda, pisu horiek alokairu arruntetara itzuliko zituztela. Han eta hemen entzun ziren hori egitekotan ziren etxejabeak. Denborak erakutsi du, baina, pandemia ostean “ezer ez da berdina izango” genioenean, kasurik onenean inozokeria zela, eta gauzak ez direla horrenbeste aldatu. Halaxe gertatu da alokairu turistikoaren merkatuarekin ere. Daktartzan ondorioekin batera mugarik gabe gora egiten ari zen momentuan pandemia etorri zen, eta arnasa eman zuen. Pandemia amaitu ahala, berriz ere berpiztu da pisu turistikoaren merkatua, eta bizkor batean galdu zuen hedapena berreskuratzen ari da.

Donostia da Euskal Herrian alokairu turistiko gehien jasotzen duen hirietako bat, eta merkatu horren egungo hedapena nahiko fenomeno berria denez, eztabaidak eragin

ditu. Testuinguru pixka bat jartzearen, Euskal Autonomia Erkidegoan, 2022 amaieran 6.708 iragarki zituen Airbnb-k, eta gutxi gorabehera horien laurden bat Donostian zegoen: 1.649. Plataforma horretan 2017 eta 2018 artean 1.800 iragarki izatera iritsi zen Gipuzkoako hiriburuan. Azken urte hartan, Donostiako Udal Gobernuak Ordenantza berria argitaratu zuen alokairu turistikoak erregulatzeko, eta horrek eragina izan zuen urtebetean, 2019ko martxoan 1.437ra jaitsi baitziren; pandemiaren eraginarekin ere jaisten jarraitu zuten, eta 1.311 izatera iritsi zen 2020ko abenduan. Baina esan bezala, sektore horrek azkar utzi du atzean pandemia, eta 2022ko irailean 1.659 iragarki zituen plataformak hirian, eta hazkunde abiadura horrekin laster hautsiko du 2018ko marka. Testuinguru horretan, Haritik Hirirak egindako ikerketak negozio mota horri buruzko datu argigarri asko ematen du, baita beste hainbat mantra gezurtatu ere.







## EZ DA HOTELEN ALTERNATIBA

Ikerketak seinalatzen duen moduan, Airbnb hotel eta ostatuen alternatiba “atsegin” moduan jaio zen: Airbnb hitzak koltxoi puzgarria eta gosaria esan nahi du ingelesez. Kapitalismoak errekuiperatu duen ekonomia kolaboratiboaren burbuilaren testuinguruan, bidaiari alternatiboak eta tokian tokiko jende eskuzabala lotzeko asmoarekin jaio omen zen plataforma, lehenengoek hotelen negozioari iskin egin eta esperientziak trukatzeko. Gainera, edonork jarri dezakeenez iragarki bat, hil amaieran justu dabiltzanek ere sos batzuk biltzeko beren etxeko gela bat jarri dezakete alokairuan.

Datuek, baina, gezurtatu egin dute hori. Lehenik eta behin, nork dauka aukera gela bat edo are etxe oso bat alokairuan jartzeko? Zenbat eta aberatsago izan, orduan eta etxebizitza eta espazio gehiago eduki ohi da, beraz, orduan eta errazagoa da alokairu mota hori erabiltzea. Baina, gainera, alokairu turistikokoaren sektorea jada monopolizatuta dagoen eta are gehiago profesionalizatzen ari den sektorea da. Ikerketaren datuek diote 2017an hirian etxe bakararra eskaintzen zuten erabiltzaileak guztien artetik %79 zirela, eta bi edo gehiago eskaintzen zutenak %21. Bigarren multzo horren esku zeuden, ordea, eskaintzen

Donostian erabiltzaile txikiak dira gehiengoak, baina proportzioan geroz eta gutxiago dira; handiek, berriz, gutxiengoak izanda, merkatuaren zati handiena kontrolatzen dute

ziren etxe guztien %61,34. 2022ko irailean Donostian 730 erabiltzaile zeuden Airbnb plataforman; horietatik 528k etxebizitza bakararra eskaini zuten, eta 202k, bi edo gehiago. Hau da, gehiengoak diren (%72,33) erabiltzaile xumeenek heren bat eskaini zuen. Baina hazten ari den erabiltzaileen %27,67 ahaltsuenek eskaintza osoaren zati handiena pilatzen dute: %68,17.

Donostian, beraz, erabiltzaile txikiak dira gehiengoak, baina proportzioan geroz eta gutxiago dira; handiek, berriz, gutxiengoak izanda, merkatuaren zati

handiena kontrolatzen dute eta are gehiago pilatzen ari dira. Beste aldean ere, bezeroen partetik ez dago denen esku plataformaren bidez gaua hartzea: 2022ko irailean, Donostian gaua igaro eta gosariagatik 203 euro ordaindu behar ziren batez beste, etxebizitza zein gela solteak kontuan hartuta. Prezio hori Paris, New York edo Bartzelonako batezbestekoa baino garestiagoa da.


## ERDIGUNEAN PILATUTA

Plataforma horren inguruan zabaldu izan den eta egitik gutxi duen beste ideia bat da hotel zein ostatu tradizionalen alternatiba dela. Ikerketak dio hein batean lortu duela hotel eta ostatuek harrakadetan lortu ez duten hedapena, eta horiek iritsi ez ziren tokietara iritsi dela. Eta azken urteetan izan duen gorakada ikusita, hala da. Baina espazioan izan duen kokapenari erreparatuta, Airbnb-ren joera izan da jada gainesplotatuta dauden erdiguneko auzoetan finkatzea: duela sei urte eskaintzaren %60 Gros, Erdialdea eta Parte Zaharrean pilatzen zen, eta 2022ko irailean %65. Gainera, azken urteko hazkunde orokorraren baitan —Añorga, Miramon-Zorroaga eta Zubieta auzoetan izan ezik—, erdialdeko auzoak hazi dira gehien, nahiz eta jada saturatuta egon.




Grosen eta Erdialdean pilatzen dira etxebizitza turistikoko gehienak hirian.


## BATEZ BESTEKO PREZIOA GAUEKO



## ESKAITZA OSOAREN BILAKAERA (2017-2022)



## ALOKAIRUAREN PREZIOA €/m<sup>2</sup>



Udalak berak egindako zonifikazioari jarraiki, proportzioan aurrez zeuden iragarki kopuruarekin alderatuta, A zona (Parte Zaharra, zona saturatu izendatua udalak berak) da azken urtean gehien hazi dena: 2021eko eta 2022ko irailaren artean %21,31 hazi da. B zona (Gros, Erdialdea, Amara, Mirakontxa, eta Antigua eta Egiako gunek batzuk biltzen ditu, gunek jada oso esplotatuak) hazi da ondoren, %17,35. Eta azkenik, pisu gutxien duten auzoak, C zona hazi da gutxien, %12,4.


Etxebizitza arruntak eta alokairu turistikoak kopuruaren arteko proportzioari erreparatuta ere, errenta baxueneko auzoetan etxebizitza kopuru totalaren %1 ere ez da bideratzen alokairu turistikora. Erdialdeko errenta altuko gunetan, berriz, etxebizitzaren %6 eta %8 artean Airbnb bidez eskaintzen da. Hau da, jada presio turistiko gehien duten gunek dira gehien hazten jarraitzen dutenak, eta horiei bestelako alokairu turistikoak, hotelak eta ostatuak gehitu behar zaizkie. Ikerketak dio horrek ere argi uzten duela Airbnb bidez hilabete amaierara iritsi ahal izateko sos gehigarri batzuk lortu nahi dituzten erabiltzaileak oso gutxi direla, errenta baxuenak dituzten auzoetan ez baitago apenas eskaintzarik.

## ALOKAIRU ARRUNTAK, GUTXITZEN

Azken urteetan eztabaidagai izan da ea alokairu turistikoek zenbat eragiten dien alokairu arruntak bizi nahi duten herritarrei, eta beraz, zenbateraino ari diren auzokideak kanporatzen. Kausalitate hori demostratzen zaila bada ere, ikerketaren datuek Donostian horixe iradoki dute: etxebizitza turistikoak alokairu arruntak prezioa igoarazten ari direla, eta, beraz, jendea kanporatzen. Azken urteetan, 2008ko krisian adreiluaren burbuilak eztanda egin osteko barealdiaren ondoren, etxebizitza espekulazio espazio kutun bilakatu da putre-funts, inbertsionista, kapitalista eta jabe handi eta ez horren handientzat.

Donostian, Euskal Herriko eta Espainiako Estatuko alokairuen preziorik altuenetakoak edukita, azkenaldian asko egin du gora: 2017 urteko apirilean 12,9 euro balio





HARITIK HIRIRA. ITURRIA: INSIDE AIRBNB (2022)

zuen metro koadroak, eta bost urtean, 2022ko irailean, 15,9 euro, %23,26ko igoera. Horrek jada arazoak ekarri dizkie Donostian alokairuan bizi nahi duten langile klaseko pertsoneri. Baina epe bera hartuta, Airbnb-ko alokairuak %60,72 garestitu dira, alokairu arrunta baino 2,5 aldiz gehiago.

Ikerketak aipatzen du alokairu turistikoaren errentagarritasuna alokairu arruntarena baino hiru aldiz handiagoa izatera irits daitekeela. Etxebizitza merkatu espekulatibo bilakatuta, errentagarritasun bila dabilenak alokairu arrunta albo batera utzi eta alokairu turistikoan jarriko dituzte bere higiezinak. Hala, auzo askotan alokairu arruntarra bidera zitekeen etxebizitza asko eta asko etxebizitza turistiko izatera igaro dira, eta horrek asko murriztu du alokairu arruntaren eskaintza. Gainera, eskaintza urria eta eskaera handia izateak prezioak igotzea baimentzen die etxejabeek.

Ikerketak behin eta berriz dio 2000 eta 2020 bitartean hirian biztanleria gehien galdu zuten auzoak Erdialdea

Airbnb bidez hilabete amaierara iristeko sos batzuk lortu nahi dituztenak oso gutxi dira, errenta baxuenak dituzten auzoetan ez baitago apenas eskaintzarik

–Parte Zaharra barne hartuta– eta Gros direla: %5,63 eta %12,82, hurrenez hurren. Beraz, Donostia erdialdeko auzoak presio espekulatibo handiena dutenak izaki –baita alokairu turistiko gehien ere–, eta biztanleria galera handiena jasan dutenak, zaila da hor loturarik ez aurkitzea.

## BIZILAGUNAK GALTZEN

Ikerketak Donostiako Airbnb merkatuaren erradiografia egiteaz gain, negozio honek auzokideengan eragiten dituen kalteak azpimarratu ditu. Etxebizitza bat turistiko bilakatzeak norbaiten desplazamendua edo kanporaketa dakar, eta denbora luzez auzoetan sortu diren komunitate eta bizilagun sareen galera eragiten du. Beste ikerketa batzuei erreferentzia eginez, txostenak dio frogatu dutela “eguneroko bisitarien joan-etorriek bizilagunek auzoarekiko edo bizi diren gunearrekiko duten atxikimendu emozional eta materialak apurtzea” dakarrela, eta auzoan ematen den prozesuak kanporatzea eta larritasun sentimenduak eragiten dituela. Azpimarratzen du, halaber, profesionalizatu egin den etxebizitza turistikoaren sektoreak gehienetan ezkutuan geratzen diren eta prekarioak izan ohi diren “lan-kate luzeak sorrarazten” dituela: garbitzaileak, mantenimenduko langileak, harreragileak, eta abar. Lan kaskarrak bizilagunentzat, etxebizitza urri eta garestiak ordaindu ahal izateko.

## Etxebizitza turistikoak debekatzeko gida

Udaletxearen Ordenantzatik harago, beste eragile eta norbanako asko saiatu da alokairu turistikoen merkatuari mugak jarzen. Horien artean, Gros auzoko Saretxe etxebizitza sindikatuak bizilagunen komunitateetan alokairu mota horiek debekatzeko kanpaina martxan jarri du. Erreportajearen aipatu bezala, Donostian Gros da merkatu horren presentzia handiena duen auzoetako bat, baita auzokide gehien galdu duenetako bat ere.

Etxebizitza turistikoak nola debekatu azaltzeko gida laburra argitaratu dute, eta etxez etxe zabaltzen ari dira orain. Horretarako nahikoa da komunitateetako bileretako gai ordenean puntua sartzea, bozkatzera eta etxejabeen bostetik hiruk alde bozkatzera. Eraitza hori erregistratuta, legez debekatua geratuko da eraikin horretan alokairu turistiko gehiago jartzea, neurri horrek ez baitie eragiten jada martxan daudenei.



DANI BLANCO

Bitartean, Airbnb-ren sortzaile diren Brian Cheskyk, Nathan Blecharczyk eta Joe Gebbiak, 8.300 milioi, 7.280 milioi, eta 7.090 milioi euroko dirutza metatu dute hurrenez hurren, mundu osoan alokatzen diren etxebizitza turistikoen komisioretatik abiatuta. Hasieran aipatutako ekonomia kolaboratzailetik gutxi geratzen zaio enpresa erraldoi horri.

### UDALAREN MUGAK EZ DIRA NAHIKOA

Bada, ordea, enpresa horren jardunaren ondorioei aurre egiten saiatu denik ere. 2018ko martxoaren 26an, EAJk eta PSE-EEk osatutako Donostiako Udal Gobernuak Ordenantza berria argitaratu zuen alokairu turistikoen hedapena

Alokairu turistikoekin  
alokairu arruntarekin  
baino hiru aldiz  
diru gehiago irabaz  
daiteke

mugatzeko asmoz. Txostenak, baina, argi azaltzen du ez duela behar zuen eraginik eduki, inoiz halako asmorik bazuen eta martxa honetan, laster gaitutiko duela 2018an 1.800 etxebizitza

turistikorekin hirian ezarritako marka.

Ordenantza presio handia zuten guneak arintzeko helburuarekin egin zuten, baina aipatutako zonakako hazkundearen datuek erakusten dute hori ez dela gertatu. Parte Zaharra eremu saturatu izendatu zen, beraz, ezin dira alokairu turistiko gehiago martxan jarri, soilik ordenantza indarrean jartzera-koan tramitean zeudenak. Hala ere, azken urtean han hazi dira gehien alokairu turistikoak, ehunekotan. Eta jarraian, presio turistiko asko zuten hiriaren erdialdeko auzoetan hazi dira gehien. Ikerketaren hitzetan, ordenantza hori ez da nahikoa alokairu turistikoen hazkundera geldiarazteko, eta ez du balio izan presio hori arintzeko. ●



“ ”

# “Liburu honek esplikatzen du zergatik den Nafarroa horren kontserbadorea eta horren errebeldea aldi berean”

Imanol Satrustegi

1960-70eko hamarkadako Nafarroara eraman gaitu Imanol Satrustegi historialariak (1993, Iruñea) argitaratu berri duen *Beste mundu bat nahi genuen* liburuak. Ezkerreko mugimendu iraultzaileen (ORT, LKI, EMK, PT...) bilakaera aztertu du eta beste lekuetan izan ez zuten erreferentzialtasuna Nafarroan zergatik eman zen arakatu.

 XUBAN ZUBIRIA

**D**onostiako Alde Zaharrean elkartu gara Josu Txueka historialariaren laguntzarekin egin behar duen liburu aurkezpenaren aurretik. Hiru urtez jardun du Nafarroako Unibertsitate Publikoan Nafarroako ezkerreko mugimendu iraultzailea aztergai duen doktorego tesia burutzen. 1960-70eko hamarkadetan gertatu zen eferbeszentzia gorriaren zergatietan murgiltzeko, asko izan dira elkarrizketatu dituen militanteak, bisitatu dituen egoitzak eta arakatu dituen aldizkariak. Momentu hartan txapel gorria baino bandera gorria hartu zuten nafar haien historiari buruz mintzatu gara berarekin.

**Zure ikerketa tesia du oinarri liburuak. Nafarroa gorri bat ere izan zela aldarrikatzeko nahia sumatzen zaio lanari.**

Garai batean oso tesi luzeak egiten ziren eta urte asko behar zenituen tesi bat amaitzeko. Nik argi nuen tesi motza egin nahi nuela eta 200-300 orrialdeko lana burutu dut. Liburua tesia da bere gordinan. Nik askotan esaten dut liburu

honek garenaren parte bat esplikatzen duela. Zergatik den Nafarroa horren kontserbadorea eta horren gorria edo errebeldea aldi berean, hain euskaltzalea eta erdalduna. Honen zergatietan arakutzen du lanak.

Gipuzkoan eta Bizkaian badago Nafarroaren irudi kontserbadore bat. UPN, Opus Dei... Bai, baina horren atzean askoz ere gehiago dago. Nik uste Trantsizioan gertatu ziren gertakariak ulertu gabe ezin dela esplikatzen ahal NATOri zergatik eman zioten ezezkoa nafarrek edo zergatik Nafarroa izan zen Espainiar Estatuko intsumiso tasarik altuena izan zuen lurraldea. Bazen oinarri sozial errebelde bat bor-borka eta berau aztertzea ezinbestekoa da.

**Existitzen diren zenbait topiko ezbaian jarri dituzu.**

Trantsizio garaia dagokionean izan liteke. Baina Nafarroaren irudi kontserbadore hori deseraikitze haratago joan behar dugula uste dut. Nafarroa Gerra Zibilean irudikatzen dugunean beti datozkigu burura Iruñeko Gazteluko

Plazan formatu ziren erreketek taldeak. Sinbolismo handiko gertakaria izan zen hura, baina agian are sinbolikoagoa da 3.500 (errepublikano, abertzale, komunista...) hil zituztela jakitea. Izan ere karlistek Nafarroa menperatu zuten existitzen zen Nafarroa ezkertiar hori erail ostean. Beraz, Nafarroa historikoki kontserbadorea da? Bai, baina ez uste duguna bezain beste.

**Zu, baina, konkretuki 1960-70eko hamarkadetako ezkerreko mugimendu iraultzaileen azterketan zentratu zara, ez da paradoxikoa ETAre gisan mugimendu hauek ere espazio kristauek eraldatu izana?**

Hori giltzarria izan zen. Nazioarteko fenomeno bat izan zela esan genezake. Elizaren sektore batzuk hurbildu ziren langile klasearengana, hasiera batean intentzioa zen jainkoaren hitza langileengana eramatea, baino errealtatearekin talka egiterakoan mugimendu katoliko horietan zebilen zenbait jende kontzientzia hartu zuen eta hortik sortuko ziren konpromiso eraldatzaileak, politikoak, eta abar.



ORT-ren prentsaurrekoa 1976an.

ARGIA FOTOTEKA

Frankismo garaian ez zegoen antolatze espaziorik, dena zegoen debekatuta. Elizak bazituen baina pribilegio batzuk eta pribilegio horiek zirrikituak izan ziren bertatik oposizio antifrankista berria sortzeko. Horren adibide dira sektore ugariaren alboan politikoki inplikatu ziren apezak, Periko Solabarria Bizkaian edo Nafarroan Lino Otano, Patxi Erdozain, Jesus Lezaun, Patxi Larraizar eta beste hainbat.

**Txantrearra zara, egun Eunate institutua dena Canosianen komentua zen orduan. Fedea bai baina auzoaren eta munduaren eraldaketarako espazio ere bilakatu zen.**

Auzo mugimendua zen langile mugimenduaren beste adar bat. Auzoak modu espekulatiboan gaizki eraikiak zeuden, pilatuta. Kaleak asfaltatu gabe, argiteria, estolderia... Denetik falta zen. Auzo langileetan beharrak handiak ziren. Langileek, baina, bizitza auzo horietan egiten zuten heinean, lantegietan bezala borrokatzen zuten auzoan, eta prozesu haiek guztiak aurrera eramateko auzoetako parroikia eta espazio kristauak zeresan handia izan zuten. Honek Eliza eta eraldaketa are gehiago elkartuko zituen.

**Egoera hori erradikalizatu egingo zuen mundu mailako 1968ko oldarraldiak.**

Gerra Hotz betean, kapitalismoa eta sozialismoa gatazkan ziren ea nor gailenduko. Nahiz eta SESBaren irudia txartzen hasita zegoen, baziren Kuba, Aljeria, Vietnam eta, batez ere, Txina. Posible zen oraindik mundu desberdinak irudikatzea. Testuinguru horretan gertatu zen 1968ko Maiatza, Frantziaren historiako greba orokor handienak 10 milioi langile atera zituen kalera. Bazirudien iraultza egitea posible zela Frantziako eta espainiako Estatuetan, edota Euskal Herrian.

Nazioartean olatu iraultzailea eman zen jarraian, baita hemen ere, eta hori da nik ikertu dudana. Olatu horren aldaera lokala edo nafarra nahiago baduzu.

**Horrela hauspotu ziren ezkerreko mugimendu iraultzaileak Nafarroan. Beste lurraldeetan ez bezala, ETari edo PCeri aurre hartuz gainera.**

Nafarroako oposizio antifrankistaren berezitasuna justu horixe da. Espainiako Estatuako lurralde gehienetan oposizio antifrankista [Santiago] Carrilloren PCEk gidatzen zuen batez ere, CCOO sin-

dikatuaren bidez. Langile mugimendua oposizio frankistaren bizkar-hezurra zen Hego Euskal Herrian eta Nafarroan bereziki alderdi komunistak indar ahula zuen bere ezkerre kokatuta zeuden mugimenduekin (ORT, EMK, LKI, PT...) alderatuta. Azken horiek hartu zuten langile mugimenduaren gidaritza. Gipuzkoan ere antzekoa zen egoera. Agian Bizkaian parekatuagoa zegoen, PCEk gerra garaitik mantentzen zuen tradizio inportante horregatik, eta nahiz eta etena egon, bazeudelako haren korrante batzuk. Bere berezitasunak tarteko, Araban giroa Nafarroaren antzekoagoa zen.

ETAren kasuan, momentu horretan zailtasunak zituen Nafarroan langileen mugimenduan sartzeko eta beraz, masa mobilizazioetan eragiteko. Honen zergati nagusietakoa errepresioa zen, beraz ETAn zentratua zegoela ezinezkoa zen lantegietan edo auzoetan eragina izatea. Beste aspektua denborarena litzateke, modu batera ETA berandu heldu zelako, mugimendu kristauak eta osteko iraultzaileak lehenago hasi zirelako. Azkenik, zatiketen arazoa legoke.

**Frankismoaren esentzia zentralizatzaile horrek zuzenean**





Oso urte gatazkatsuak izan ziren 1960-70eko hamarkadak. Irudian, istiluak Iruñean.

JOTX PASTOR / ARGIA FOTOTEKA

### eragin zuen mugimendu iraultzaile hauetan?

Antifrankismoa hein batean ez zen identifikatzen Espainiaren ideiarekin, hori erregimenari hertsiki lotua baitzen. Antifrankismoa, oro har, gertuago zegoen nazionalismo periferikoekiko. Horrek eragin zuzena zuen Euskal herriko mugimendu antifrankistan, diskurtso euskaltzalea eta antifrankista momentu jakinetan elkartu egin zirelako. Batetik hori ahalbideratzerako ETAren eragin nazionalizatzailea zegoen, eta bestetik, euskal kulturaren gertatzen ari zen berpizkundearen eragina.

### Burgosko epaiketa inflexio puntua izan zen euskaltzaletasun antifrankista horren egituraketan?

Ziur asko momentu giltzarria Burgos da baina erritmoak ezberdinak izan ziren. Burgosko gertakarien ostean Gipuzkoan eta Bizkaian abertzaleak eta iraultzaileak elkarri gerturatu zitzaizkion, imaginario bat elkarbanatzen hasi ziren. Nafarroan hori beranduago eman zen, 1975-76. urteetan batez ere. Militante ugari eginiko elkarriketetan nabaritzen da hainbatetan ezker iraultze hori erdibidean zegoela, Tuteran ziren "los vascos" ikurrinak jartzen zituztelako, baina aldez, militante berberak, Donostiara etortzean behin baino gehiagotan entzun behar izan zuten espainolistak zirela.

“ ”

**Nafarroa EAren  
parte izatea errotik  
mozteko makinaria  
eraginkorra  
izan zen**

**Erdibidean egonik ere, orain ez bezala, Tuteratik Berara kontsentsu euskaltzale bat sortzea posible izan zen.**

Frankismo bitartean, azken urteetan, trantsizio garaia bitarte, bazegoen kontsentsu bat: Nafarroan euskaltzaletasuna transbertsala zen ia sektore antifrankista eta aurrerakoi guztietan. Graduazio desberdinak zeuden, batzuk ziren independentistak, besteak fede-



NAFARROAKO PARLAMENTUA





“*Nafarroan euskaltzasuna transbertsala zen ia sektore antifrankista eta aurrerakoi guztietan*”

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA

ralistak, beste batzuk autonomistak, baina Nafarroa Euskal Herriaren parte zen. “Nafarroa Euskadi da” leloa asko zabaldu zen. Euskal sinboloak orokor bilakatu ziren. Horren adibide da garaiko PSOEren jarrera. Berriki Mikel Buenok argitaratu duen *Nos llamarán chaqueteros* [Kamaleoi deituko gaituzte] liburuan ongi azaltzen du nola PSOE autodeterminazio eskubidearen aldekoa zen, euskal sinboloen aldekoa, eta Hegoaldeko lurraldeen lauko autonomia babesten zuen. Agian salbuespen bakarra PCE izan zen. Eskuinak nolabaiteko kontsensu honi guzti ari beldur handia zion.

Bazirudien Nafarroa EAren parte izatea ekidin ezina zela. Hori errotik mozteko martxan jarritako makinaria eraginkorra izan zen, Nafarroako sektore batekin konektatzea lortu baitzuen. Testuinguru horretan sortuko zen UPN eta jokaldi haren eraginkortasunaren adibide da beranduago PSOEek ere bere egingo zituela tesi horiek.

**Ezker iraultzailera itzulita, 1968ak hauspotu zuena azkar makurtu zuen 1973ko krisi ekonomikoak.**




Hemen beranduago eman bazen ere, nazioarteko fenomenoak izan zen. Josep Fontana historialariak burgesiarren kontrairaultza prebentibo bezala definituko zituen 1973 osteko gertakariak. Oraindik aukera guztiak mahai gainean zeudela, burgesiak 1973ko

krisi ekonomikoa erabili zuen langile mugimendua ahultzeko, ezker erreformista sisteman integratzeko, erakunde burgesak birlegitimatze eta pixkanaka politika ekonomiko neoliberalak sustatzeko. Horrela etorriko ziren gero Margaret Thatcher edo Ronald Reaganen garaipenak, bizi eredu berriak eta langile mugimenduaren atzeraldia. SESBaren erorketarekin erabateko porrota baieztatuko zen. Gauetik egunera 1968ko esperientzia guztiak desagertu ziren Europa guztian. Izaera abertzale indartsua zuten gatazkek bakarrik iraungo zuten, baita Euskal Herrian ere.

**Ez dirudi gainbeherari buelta eman zaionik.**

Berealdiko krisian da ezkerria, egoerari ezin buelta emanda. Hemen historialariok abantaila dugu: iraganari begiratzen diogu. Oso pozik nintzateke liburu hau ez balitz geratuko soilik akademiaren esparruan, eta inspirazio iturri izango balitz hainbat mugimendurentzat. Ez dut esan nahi garai hartakoa kopiatu behar denik, baina eztabaidak pizteko behintzat balioko balu, pozik nintzateke. Izan dadila ezkerria berrasmatzeko beste tresna bat. ●





# Baleen galbiderako lehen kolpea



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**L**ekeitio eta Ondarroa, 1623ko martxoaren 11. Bi herrietako arrantzale ko-fradiak hitzarmena sinatu zuten biek batera harrapatutako balea elkarren artean banatzeko. Euskal kostaldeko herrien arteko tirabirak oso ohikoak ziren, baina tarteka, geroz eta maizago, herriek bat egiten zuten, baleak errazago harrapatzeko eta etekinak, zatituta bazen ere, lortzeko. Izan ere, duela 400 urte gauzak aldatzen ari ziren: euskal arrantzaleak, mendetan balea-arrantzan nagusi eta aitzindari izan ondoren, nagusitasun hura galtzen ari ziren, ingeles eta herbeheretar arrantzaleen mesedetan bereziki. Arerioa ez zegoen aldameneko herrian, atzerrian baizik.

Hurrengo mendearen hasieran, 1713ko Utretcheko Itunean, Ternuan aritzeko eskubide guztiak galdu zituzten euskaldunek. Artean, ehizatutako balea kopuruak etengabe gora egin arren, balea populazioak eta zehazki *eubalaena glacialis* edo euskal balearena, ez zeuden arriskuan. XIX. mendean industrializazioak bultzatuko zituen galbidera. Batetik, bapore ontziak eta, bereziki, harpoi mekanikoak asko erraztu zuten baleak ehizatzea. Baina, nagusiki, industria jaioberrien eskaerak eragin zuen triskantzarik handiena, makina askok balea-olioa behar baitzuten funtzionatzeko. Industrializazioaren motore nagusietakoa izan zen trenak hil zituen balea gehien; balea-olioari tren-olioa ere esaten zion zenbaitek.



CHARLES D'ORIGNY

Ordurako euskal arrantzaleak jardueratik kanpo zeudenez, baleen suntsipenean erantzukizun zuzenik ez zutela izan pentsa daiteke.

Antzinaroan hasi ziren gizakiak baleak ustiatzen, hondartutako baleak aprobetxatzen eta kostaldera hurbiltzen zirenak ehizatzen. Euskaldunak ere hala hasi ziren, baina XIV. eta XV. mendeetan geroz eta urrutiago joan behar izan zuten haien bila. Zaila da garai hartako balea populazioak eta harrapatutako balea kopurua kalkulatzeko. Arrantzaren eraginez, geroz eta balea gutxiago hur-

biltzen zen Bizkaiko Golkora ala euskal baleazaleek geroz eta gehiago harrapatu nahi zituzten? Ordura arte baleak barne kontsumorako harrapatu ohi zituzten, baina euskaldunak balea-produktuen merkataritza haratago eraman zuten. Etekin handiak lortuz, balea-industria jarri zuten abian.

Hortaz, hildako balea kopuruagatik baino ezarri zuten negozio kulturagatik dira erantzule euskal baleazaleak. Beste batzuek jarriko zituzten baleak desagertzeko arrisku larrian, baina euskaldunek eman zizkieten horretarako tresnak. ●



LUDOVIC SLIMAK

## Gezirik zaharrenak?

Frantziako Mandrin kobazuloak aztarnategi neandertal garrantzitsua gordezen du. Baina berriki *homo sapiens*ek utzitako hainbat gezi aurkitu eta 54.000 urtetan datatu dituzte, inoiz aurkitutako zaharrenak. Horrek esan nahi du, bi espezieek uste baino askoz lehenago egin zutela topo, neandertalek arkuen eta gezien

teknologiarekin ezin izan zutela lehiatu eta, besteak beste, horrek jarri zituela desagertzeko bidean. Kontua da hainbat adituk zalantzan jarri dutela datazioa zuzena ote den eta suharrizko piezak geziak edo lantzak ote diren. Beraz, froga gehiago eta azterketa zehatzagoak beharko dira hipotesia baieztatzeko. ●

## SARE SOZIALAK

# Morse, telegrama eta mugikorrak

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA



**T**eknologia berriek eraman nautte zaharrak nola funtzionatzen zuen errepasatzera, irakurle. Azalduko dizut: jaso dut proposamena ARGIAren Telegram kanalak idazteko artikulua, hori da sokaren muturra; WhatsApp-era eraman nau nire neuronon lehen txispak; horrek hegoaldean (beraz, Espainian) behintzat hain ezagun egin zen *whastaaaap* iragarkira (Frantzia ere bai?); hortik Telegram izena nondik etorriko den pentsatzera; eta iritsi naiz Wikipedian telegrama eta telegrafo hitzak sartu eta Morse sistema ulertzeraino. Polita izan da bidaia, baina artikulua entregatu beharrak itzuli nau errealtaterara.

4.000 jarraitzailearen langara iris-tear da ARGIA Telegramen (T.me/ARGIAeus). Helburua, komunikatzea. Mugimendua geroz eta handiagoa da sare sozial honetan, gehiago, azken aldian telefono berdearen segurtasun eta pribatutasun falta bolo-bolo dabilenean. Ez da artikulua honen helburua orain Telegram loratzea. Zentsura ere heldu da tresna horretara, 2022an RT eta Sputnik hedabideen kanala blokeatu baitzituzten, Ukrainako gerra tarteko. Baina beste batzuen ondoan segurtasun eta pribatutasunaren aldetik aukera gehiago eskaintzen ditu, kanal publikoak sortzeko bide ematen du eta

onena, guk zabalduko informazioa zuzenean iristen da jarraitzaileengana.

## JENDEA NON, ARGIA HAN

Multinazional eta enpresa handien esku dauden tresnetan, batez ere sare sozialetan, beraien nahieran aukeratuak algoritmoen arabera agertzen zaigu informazioa eta haiek ezarritako arauetan jokatu behar dugu partida. "Jendea hor dabil eta gure helburua izanik jendea dagoen tokietan eragiten saiatzea, gure kontraesan guztiekin hor gaude", azaldu digu Axi Lopez ARGIAko kazetariak. "Dena den, garbi dugu garai hauetan garrantzitsuena hedabideok gure tresna propioak sortzea dela, informazioa eta tresnak guk geuk kudeatu eta moldatzea", azpimarratu du eta segi "baina berriz diot, jendea hor dago eta gu, gure kontraesanekin, hor gaude".

Baina partidako fitxak, estrategiak, taktikak eta teknikak ezagututa hor dabilenari zer esan? ARGIAk baduela Telegramen kanal bat egunean zeharreko gertakariak motz-motzean jaso eta zuzenean gure mugikorretera zabaltzen dituen, ez dena oso inbasiboa eta tresna polita dena azken orduko gertakarien, eguneko albisteen, multimedialako edukien eta abarren berri izateko. ●

## Euskararen erabilera sozialari egindako ekarpenagatik hobaria

Beste urte batez, Hego Euskal Herrian bizi diren ARGIAko kideek euren errenta aitortenean hobari fiskala izango dute. Euskararen esparruan lehentasunezko mezenasgo jardura izatea lortu du berriz ARGIAk. Hedabide honek euskararen erabilera sozialari egiten dion ekarpenaren eta onura publikoaren aitortza bezala ulertzen du hau ARGIAko lantaldeak, eta garrantzia berezia ematen dio horregatik. Komunikazio proiektu honen helburua da herritarrak euskaraz informaturik egoteko eskubidea bermatzea, kazetaritza independente eta zorrotz baten ikuspegitik.

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako ARGIAko kideei egingo die mesede hobari honek, eta ARGIAko jarritako diruaren ehuneko bat itzuliko zaie, kultur proiektu bati egindako ekarpena delako. Itzulitako kopurua ez da berdina lurraldearen arabera: Araban jarritako diruaren %30 jasoko dute; Gipuzkoan %30; Bizkaian %35; eta Nafarroan %80 lehenengo 150 euroetan, %35 ondorengoetan.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako kideen kasuan ez dute oraingoz halako hobaririk izango, baina ARGIAk jarraitzen du aztertzen zein bide egon daitezkeen muga administratiboen gainetik Iparraldeko herritarrek ere aukera hori izan dezaten.

ARGIAko kide diren milaka herritarrek egindako diru-ekarpenari esker da posible ARGIAren edukiak Euskal Herriko lau ertzetara zabaltzea, paperean, interneten eta buletinen bidez. Komunitatean oinarritzen den proiektua da honakoa.

Mila esker guztioi!





# ZAZPI GRADUEN KOXKA, ZUHAIZPEAN



JAKOBA ERREKONDO  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

**Z**enbat bertso, olerkik eta poemak aipatzen dute zuhaizpe batean izandako egonaldia? Erromantikoa, nartzizista, eromenarena, gaztekeriazkoa eta abar. Horiek idatzi eta kantatu dituen makina bat lagun zuhaizpe batean egoera horretan sekula egon gabekoa izango da. Izan, izan agian bai, baina egon gabe; zuhaizpean egon gabe. Buruak askorako ematen du.

Zuhaizpeari ez al diogu balio handiegia ematen? Denetatik otu dakiguke. Zuhaitz gaiztoak ere badira, intxaurrondoa (*Juglans regia*) adibidez. Bere izenak dakarren kolonizatzaileen tortura basatien gogorazpen soilaz gain, bere azpian lo kuluxkarik ez egiteko dio ohiko esaerak: "Intxaurraren azpian lo egitea txarra". Plinio zaharrak ere jaso zuen: "Bere itzala trinkoa da eta pertsoneri buruko mina eragiten die eta inguruan landatutako edozeri kalte egiten dio". Bestela ere esaeratik osatua dago intxaurrondoa: "Intxaurre etxe ondoan txarra", "intxaurre arbolak ez du lagunik nahi", Jose Kruz Etcheberriak 1821ean idatzi zuen "kalte handia egiten die intxaurrek hura aldatuta dagoen tokiko mahasti eta soroari". Badakigu intxaurrondoak ez duela inguruan nahi lurreko elikagaiak sustrairatzerakoan kompetentzia egingo dion beste inor. Horretarako hostoetan eta sustraiekin juglona deituriko substantzia pilatzen du. Hostoetakoa lur gainera eroriko da, arbolapeko landare gajoei erasoz, eta sustraiekin antzera... Esaeretan jasoa den horri gaur egun "alelopatia" esaten diogu eta gutxi gehiago nola lan egiten duen badakigu. Intxaurrondoarena alelopatia negatiboa da, hau da, kalte



egiteko erabiltzen ditu substantziak. Antzera lan egiten dute eukalipto batzuek (*Eucalyptus spp.*): horien azpian pilatzen diren hosto-hondakinek eta sustraiek jariatzen dituzten "izerdi" alelopatikoak dira eukaliptadiko landare "basamortuaren" erantzuleak, izan ere, lurzoruko mikrobio batzuk eta batez ere landare-espezie asko zuzenean erasotzen dituzte, bizitza bera eraman ezina egin arte.

Alelopatia positiboak ere badira, landare batek beste bati lagundu egiten dionean, adibidez. Leka (*Phaseolus vulgaris*) eta marrubia (*Fragaria x ananassa*) lagun handiak dira; elkarren ondoan biziz gero askoz bizimodu hobea izan eta uzta oparoagoa emango dute. Hone-lako adibide mordoa ere badago.

Zuhaitzen eta arbolen laguntza nabarmenena guri egiten digutena da. Alelopatia alelopatia, ematen diguten itzala ez da, Beñat Sarasolak dioen bezala, saguza-

rraren eguerdiko doministikua. Frantziako INRAEk gidatu duen Cooltrees programak eman dituen neurketen arabera, bi aldeetan arbolak landatuta dituen hiriko kale batean 40°C inguru egiten duenean 7°C jaisten dute tenperatura, arbolek, noski. Programa horretan lanean aritu den Augustin Bonnardot arbolazainak 7ko horren koxka argitu digu: "Inpaktu hori tamaina errespetagarria duten zuhaitzena baino ez da. Zuhaitz horiek beren ahalmen osoa eskaintzeko, helduarrora iritsi behar dute, eta beraz, premiazkoa da hiriko bizitzarekin bateragarriak diren zuhaitzak zaintzea eta baldintza onetan landatzea".

Nahikoa lan jarri digu, gure zuhaitz eta arbola gehien zainza arborizida, kriminal, hiltzaileen eskuetan dugun herronon. Zuhaitz handirik ezagutzen al duzu hirian zure inguruan? Eskertu iezaiozu, bada, itzala behinik. ●

ISMAEL ZUBIETA ARRIETA

## “GALTZEKO ARRISKUAN DAGOEN ARRAZA DA SASI ARDIA, EZ DA ERRAZA LORTZEA”



GARAZI ZABALETA  
@TIRIKITRANN

**A**rabako Hermua herrikoa da Ismael Zubia Arrieta artzaina. Baserrian jaioa, txikitatik izan du lehen sektorearekin harreman estua: “Aita gaztetan Ameriketara arituen artzain, eta handik bueltan erosi zituen baserria eta lurrak”. Zubia txikia zenean ekarri zituen aitak lehenbizikoz sasi ardiak etxera, Goizueta aldetik. Gaztetan, elektromekanika ikasketak egin zituen eta eolikoetako mantenimendu lanetan jardun zuen urte askoan, baina beti mantendu zituen ardiak, arrebarekin batera. Duela sei urte, ordea, kanpoko lana etxekoarekin eta bizitza pertsonalarekin uztartzeko zailtasunak medio, ordu arteko lana uztea eta artzai egitea erabaki zuen.

### ERROTAZIODUN ARTZAINZTA

Maneju holistikoaren inguruko zenbait ikastaro jaso zituen gazte arabarrak, eta pixkanaka buru kopurua handitzen joan zen. “Egia da sasi ardi arrazako ardiak lortzea ez dela erraza, ez baitago asko”, azaldu du. Mendiko arraza da sasi ardia, sasi artean asko ibiltzen dena –hortik izena–, eta artalde handietan baino, bakarka edo talde txikitik gehiago mugitzen dena. Morfologia aldetik, tamaina nahiko txikia du, kolore gorrixkagoa eta latxak baino artile gutxiago. “Hau ez da esnetarako arraza ona, axuritarako erabiltzen da”, azaldu du Zubiak.

Maiatzetik urtarrilerara mendian izaten ditu ardiak, librean. Udaberri garaian beheko lursailletara jaisten dituenean, be-



rriz, errotaziodun artzaintza egiten du: larreak hari elektrikoarekin zati txikitik banatu, eta egunero edo bi egunetik behin zatiz aldatzen ditu. “Modu horretan, ez dute belarra aukeratzeko, ona eta txarra, dena jaten dute, zatia garbi utziz. Lurra- rentzat ere hobea da: landareen aniztasuna hobetzen da, lurrak ongarritzen dira eta karbonoa ematen zaie”. Ardientzat ere onuragarria da, izan ere, etengabeko mugimenduan ari diren horretan, ez dira kaka egiten duten tokian luzaz egoten, eta parasitatzeko aukera mugatzen da. “Azkenean, natura imitatzeke era bat da, lehen harrapakariekin mugiarazten zituzten taldeak”, Zubiaren hitzetan.

### ARRAZAREN BIZIRAUPENA HELBURU

Galtzeko arriskuan dagoen arraza da sasi ardia, eta kontserbazio programa batean parte hartzen du Zubiak. Horretarako,

ardiak genealogia-liburu batean jasotzen dira. “Odol analisiak egiten zaizkie eta kalifikatzaile bat etortzen da urtean behin, gurasoak arraza horretakoak dituen egiaztatzeko”. Baldintzak betetzen badituzte, liburu horretan sartzen dira ardiak, eta horietako batzuk bizirik uzten ditu artzainak, arraza horretako ardiak nahi dituztenei saltzeko. “Esaterako, Nafarroako gazte bat nire antzeko proiektua abiatzen ari da orain, eta hark ardi dezentte eraman dizkit”, zehaztu du.

Axurien salmentari dagokionez, zuzenean bidea bakarrik darabil Zubiak, eta eskaera bidez funtzionatzen du: hurbileko herrietako eta Gasteizko bezeroek axuri ekologikoen eskaerak aurrez egiten dizkiote, eta artzainak hainbat txandatan Oñatiko hiltzegira eramaten ditu. Banaketa ere bere esku du: “Manejua, erreserbak, hiltzegira eramatea, banaketa... dena egiten dut neronek”. ●



EUSKAL HERRIKO  
HAZI EKOLOGIKOAK

Leunda Berri Baserria  
Beizama, Gipuzkoa



EGIN ZURE  
HAZI ESKAERA!

[www.aleka.eus](http://www.aleka.eus)

- BASERRITARRAK SAREAN
- AGROEKOLOGIA
- BIOANIZTASUNA
- BERTAKO EKOIZPENA





## ALDARRI ZAHARRAK BERRI

# KULTURA PREKARIOA DA

Hitz testualak dira: “Euskarak iraun badu, kultura bat garatu duelako izan da; eta kultura horrek iraun badu, euskaldunek euskara bizirik gorde dutelako da”. Hala diote Lanartea elkarteko lagunek *Laineza. Kultura haragi bizitan* liburuko hitzartzean; 50 artistak baino gehiagok hartu du parte piezaz pieza ondutako bilduman. Pieza laburrak dira, ahots askoko aldarriz beteak. Finean, gaur egungo Kultur Industria sortzaileen ahotsik gabe eraikitako industria dela ohartarazi dute.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

**L**angostino asko jan beharra dago ogia irabazteko”, hala dio Andoni Egañaren artikulua. Euskararen langile autonomoari ez diote duin ordainduko, ez da ohikoena, baina Egañak argudiatzen duena da bazkari edo afari batera gustu handiz gonbidatuko dutela kulturgilea. Karitatea aplikatzen zaio sortzaileari, eta ez, aldiz, duinki balora daitekeen soldata. Finean, langostino dezente jan arren, lanak izango ditu etxera ogia eramateko.

Kafesnea bukatzeko astirik ere ez du, berriz, Nerea Loiola Pikazak ipui-

nera eramandako pertsonaiak. Ez du denborarik gaur; baina agian izango du bihar. Eta haurren kargu egiteko ere antzera dabil. Posta elektroniko sarrera-ontzian dituen bi mezuk hankaz gora jarri diote eguna: bata, Ogasunak bidalikoak, urgentziaz eskatzen dio ziurtagiri jakin bat prestatu eta bidaltzeko; besteak, orde, emakumeen ekintzailetza tailer baterako gidoiari ekiteko garaia dela iradokitzen dio. Baina telefono-dei bat da gurasoei laguntza eskatu eta aurreikusiak zituenean plan guztiak hankaz gora jartzen dizkion goizeko hirugarren eskaera:

argitaletxeak dira telefonoan, berri-kusteko testu bat bidaliko diotela, eta presazkoa dela.

Horra hor egungo euskarazko sortzaile autonomoaren egoera gorabeheratsua, Lanarteako kideek deskribatzen duten gisan: hilabete honetan dirurik ez eta hurrengoan bai; egun batean pobre, beste batez nagusi; baina, funtsean, motz, eskas eta ziurgabe. Amagoia Gurrutxagarekin eta Koldo Izagirrerekin egin dugu hitzordua liburua aitzakia hartuta solasteko; Gurrutxaga da Lanartea Elkartearen koordinatzailea eta liberatu bakarra.

# EUSKALERRIKO ESKALEAK

Joan zan egun batean —beste askotan bezela— telefonik del egin zidaten. «Lurdes al zera...?». «Bai, Lurdes naiz». «Aizu: onako... herri hontan antolatu degun jaialdi batera etorriko al zihake?». «Bai; joango naiz». «Ba... zera ba... gratis izan bearko du. Ikastola berri batentzat dirua biltzeko da, ta...».

Nere telefonok del oien berri emango balu, zenbat gauz ez lituke esango...!

Eta hor goaz, gitarra besapean artuta, herriz herri, batera, eta bestera, eta bestera. Eta hor doaz Julen Lekuona, eta Lazkao-Txiki, eta Arantxa Esnaola; hor doa, dantzatu, abestu edo orrellako beste edonor gauz egiten dakien edozein euskalzaile. Hor gabiltz pertsona asko batetik bestera; zeren eta beti gertatzen da olako edo alako herri batean ikastola bat zorretan dagola, eta laguntza eman bear zaiola.

Eta ez pentsa jaialdi hoiek gaizki iruditzen zaizkidanik. Laguntza pertsona obetu egiten du. Baiña...

Domund egunataz oroiten naiz. Ume gñan, gure eltxetzuarekin «txinitoentzat» eskatzen iritzen gñan. Herriko txanpon guziak gure eltxetzuera erortzen ziran. «Duro» eta pezetza batzuk izaten ziran. Baiñan, batz ere, txanponak: beste ezertarako bear etzana, ale, txinitoentzati!

Ez ete zaigu guri ere orrellako zerbait gertatzen...? Jaialdixto bat, mesedez, gure ikastola gaixorentzat...!

Jakiña, nik gauz auzetaz askorik ez dakit, baiñan au galdetzen det. Ain beartsu ote gera euskaldunak, geren ikastola propoioak ezin mantendu izateko? Jakiña dago Estadon'ten laguntza beti ondo etortzen dala, eta jakiña baita ere ikastolak oraindik gauza berria dirala, baiña...

Nik diotena da euskaldunak gure kulturaren alde guda bizia egin bear degula. Ez dela aski «gura euskara gaxua» eta orrellako lelokeriak esatea. Ez dela aski ezker-eskubi gaizki esaka jartzea, «laguntzen ez digutela» ta, dirurik ez dagolako ta...».

Irrati asko eduki nai genituke, egunkari asko, eta al-dizkari asko, disko-etxe asko, ikastola asko... Baiñan, nola nai degu oiek denak sortzea, ditugunerri laguntzik ematen ez badiagu...?

Irrati bat badugu, Loiola'ko herri-irratia. Asteroko bat badugu, Zeruko-Argia. Ia herri bakoitzean ikastola bat badugu. Abeslariak baditugu: bertolariak ere bai. Poesi li-horruak, idazlariak, dantza-taldeak, antzerki taldeak...

Asko edo gutxi daukagu —hori bakoitzaren iritzirako dago—: baiñan daukagun hori, erdi abandonatua daukagu.

Euskaldun izateko, bearrezkoa da iltzen dijoan euskal-kulturari bultzada eta laguntza sendo bat eskeintzea. iltzen dijoan euskal kultura diot; baiñan euskal-kultura ez da berez ilko. Guri bost ajola etzaigulako ilko da, iltzen bada.

Nola nai dugu gure abesti, antzerki edo irratiak berriak eta kalidadekoak izatea, bear bezela laguntzen ez badiagu? Euskal artistak bere bizi guzian gratis eta ofizioz lana egitera kondenatua egon bear al du? Gure ikastolak aizezkoak egin al litezke? Euskal antzerkia bost edo sei afizio-naturik jarri bearko ote dute, bere laneko orduetatik kanpora?

Gure izkuntza, gure artea eta gure artistak, poliki poliki il egiten ditugu. Gauzatxoak organizatuz jostaketan ibiltzea gustatzen zaigu. Antzerki egitera jostatu, bertso egitera jostatu, ikastola goraberekin jostatu, euskaldun izatera jostatu... Baiñan egitazko laguntza serio eta praktikatu bat emateko garaiean, orduan txanponak bakarrik botatzen ditugu «txinitoen» boltsara. Jaialdi bat eratu, sos batzuek atera, eta aurrera, beste bat arte.

Badirudi gure eguneroko bizitza gauz bat dala, eta euskal-bizitza beste bat. Gure bizimodua itxuratzeke garaiean, lana sendo egin, diru asko irabazi, etorkizuna ondo moldatu. Euskaldun izateko garaiean berriz, jostatu, li-mosna eman: orlik aurrera, irripar asko, maliko merke asko, eta kitto.

Ikastola baten gastuak ordaintzeko jaialdi bat eratu dala, ta bertara kantatzen joatea oso gauza polita da. Baiñan Euskalherriko abeslari, poeta, idazle, pintore, musik-eta gainerako artista guziak, bere bizitza «arteak» egina jostatzen pasatzen beartuak egongo ote dira, beren herrian jateko aña ere eskuratzen etzalelako?

Gure herriak bizirik eta sendo mendetan zear irauan dezala nai baldin badugu, garaia da orainixe milia jostaketa polit eta txoro bazterreara utzi eta egitazko laguntza praktikatu eta zabal bat eskeintzekoa.

Orain gure eginkizuna serio artzen ez badugu, eta gure izatearen defentsan gorputz eta anima osoa jartzen ez baditugu, euskara laixter il egingo da. Gezurrezko Kijote ergel batzuk guralako ilko da.

Lourdes IRIONDO

Lourdes Iriondo,  
"Euskalerriko eskaleak". Zeruko Argia.  
1967ko urtarrilaren 29a.

*"Hor gabiltz pertsona asko batetik bestera; zeren eta beti gertatzen da olako edo alako herri batean ikastola bat zorretan dagola, eta laguntza eman bear zaiola. / Eta ez pentsa jaialdi hoiek gaizki iruditzen zaizkidanik."*

*"Nik diotena da euskaldunak gure kulturaren alde guda bizia egin bear dugula. Ez dela aski 'gure euskara gaxua' eta orrellako lelokeriak esatea."*

*"Euskaldun izateko, bearrezkoa da iltzen dijoan euskal-kulturari bultzada eta laguntza sendo bat eskeintzea. iltzen dijoan euskal kultura diot; baiñan euskal-kultura ez da berez ilko. Guri bost ajola etzaigulako ilko da, iltzen bada."*

*"Nola nai dugu gure abesti, antzerki edo irratiak berriak eta kalidadekoak izatea, bear bezela laguntzen ez badiagu? Euskal artistak bere bizi guzian gratis eta ofizioz lana egitera kondenatua egon bear al du?"*

Euskararekin lan egiten duten sortzaile autonomoek sortu zuten elkar-tea, baina euskarazko kultur sistemak dituen ezaugarriak tarteko, jakin bada-ките autonomoak ez direla gehiengo, asko direlako beste lanbide bat izan eta tartean behin kultura sortu eta faktura-tzen dutenak.

Autonomo bihurtzea sustatzen da sistematikoki, ordea. Eta horixe bera korazatu nahi da Espainian zehazten ari diren Artistaren Estatutuan. Azken aldiaren asko zaildu zaie burokrazia lana; oso lausoa den esparrua da, eta are lau-so, zail eta konplikatuagoa egiten da Hegoaldean lau Foru Ogasun izanda. Eta euskal sortzaileak ez du bere lu-rraldean soilik produzitzen, zazpi lu-rraldeak zeharkatzen ditu. Hargatik, gestorearenera jotzea izan daiteke buruhausteak arintzeko modua, betie-re poltsikoagatik ez bada. Gaur egun maldan gora jartzen ari dira gauzak. "Gaur da eguna jendea geroz eta itoa-go dagoena; gaur da eguna mila euro kobratzera iristen ez denak gestoreari ordaintzen xahutu behar duela dirua". Prekaritatearena-eta, zaharrak diren aldarri berriak egun.

## ATZOKO ETA GAURKO KEZKAK

Liburuan badira 1960 aurretik euskaraz, kulturaz eta lanaz, nekez eta penex ida-tzitako 40 sortzaileen kezak; 1960az geroako beste 45 sortzaile berriren go-goetak ere bai; eta azken horien artean aurki daitezke sortzaile gazteenen pre-miak eta aldarriak ere. Diziplina ugari-tako lanak jaso dituzte: ilustrazioa, itzul-pena, literatura, musika, bertsolaritza, antzerkia, dantza... Orotara, 80 irudi eta 85 testu. Unean uneko aldarriak, garaiko kezak eta premiak; baina esanda beza-la, erakusten da euskarazko sortzaileen kezka ez dela oraingoa.

Lourdes Iriondo kantariak argi zioen 1967an, *Zeruko Argian*, "Euskalerriko es-kaleak" izeneko artikuluan: "Nik diote-na da euskaldunak gure kulturaren alde guda bizia egin behar degula. Ez dela aski 'gure euskara gaxua' eta horrelako lelo-keriak esatea". Urte gutxi beranduago, Amaia Lasa idazleak ere kritika egin eta gogoeta kolektiborako eskua luzatu zuen *Anaitasunan*, 1971n: "Kulturak ere behar ditu bere liberatuak" esanez ekiten dio artikuluari; eta amaitzeko, berriz, honela: "Hemen ematen diot amaiera nire ser-moiari, besteak entzuteko gogoz".

Badirudi, ordea, ez dela gogoeta ko-lektiborik egin. Izagirre: "Gure elkarteko bazkideen artean, zaharrenen artean batez ere, sekulako etsipena dago. Due-la 60 bat urte bazeuden espektatibak, ilusioa, irauli zitekeela guztia, euskara batua sortu eta traba politikoak gaindi-tu; baina ez zaio buelta eman, hori da kontua. Erakundeek ez dute maila eman. Ez daude kulturaren mailan eta ez dirudi asko inporta zaienik".

## "AHAL DUGUNA SALBA DEZAGUN"

Horixe zioen Gabriel Arestik 1963an: "Ahal duguna salba dezagun, eta apur hori eraberritu dezagun. Ateratzen denarekin, munduari desafio diogun. Honela salbatuko gara". Euskarazko kulturgintzak eraberritu beharra zuela uste zuen, bazirudielako euskara egon zitekeela ate gehiago zabaltzeko gai zen agertoki horretan, euskara bateratzea-ren atariko. Eraberritze batek uniber-tsaltasuna eman ahal zion euskarari, eta hizkuntza-eredua finkatzeak lagun zezakeen traba politiko eta sasi-linguis-tikoak gainditzien.


Arestiren aldarri harroak biziberritze baten premia islatzen du; proposatzen



## Laineza: Kultura haragi bizitan liburuan argitaratutako hainbat ilustrazio



IÑAKI MARTIARENA 'MATTIN'



MAITE ARROITAJAUREGI 'MURSEGO'




UNAI GAZTELUMENDI



UNAI RUIZ GALARZA



BEGOÑA DURRUTY



LANDER GARRO



ZORMENA

AINARA AZPIAZU 'AXPI'

duena, funtsean, munduaren historian sartzea da: hartu eta euskarara ekarri, euskaraz eman ahal izateko munduari. Alegia, mundukoa euskaraz kontatu. Eta zergatik ez ere, buelta emanda, mundurako euskaraz kontatu eta kantatu.

Esaterako, bada Mikel Laboaren disko bat, 1969koa, Bertolt Brechten letrekin osatutakoa; hauxe da *Gaberako aterbea* kantua: "Kontatu didate Nueva York-en / Broadway eta 26. karrikaren kantoian / negu gorrian, gizon batek gabero / jendeari otoi eskatzen / aterbea bilatzen duela / bilutsirik daudenentzat". Kantuetan ez ezik, literaturan ere ikusi zen ahalegina, Suitzara eta Belgikara eramanez euskaraz sortutako istorioak, Ramon Saizarbitoriairen eta Txillardegiren *Egunero hasten delako* eta *Elsa Eschelen* liburuetan.

Itzulpenei era prestuago eta administratiboago batean ekin zitzaion ondoren Eusko Jaurlaritzarekin, diru dezente jarrita. Garrantzitsua ikusi zen erakundee-tatik munduko literatura euskaratzea eta euskaraz obra handiak leitzeko aukera eskaintzea, bestelako hizkuntzetan ere aukera egon badagoelako. Enkargua jarri zion Jaurlaritzak *Ibaizabal* argitaletxeari eta horri heldu zioten hainbat idazlek eta itzultzailek. Erronka handia izan zela gogoratu dute.

Baina emaitza, eskasa. "Zein izan zen promozioa? Hutsa. Eta promozionatzen ez bada ez da saltzen. Orduan, ez dezagun esan ez dela saldu ez delako nahi, ez baituzu promozionatu".

Mundukoa eta mundurako euskaraz eta euskaratik kontatzeko apustu handiek huts egin dute, bistan da. Garai hartako borrokak literatur obra handiekin izan baziren ere, antzekotasunik bada gaur egun plataforma digitalei hizkuntz eskubideak errespetatzeko egiten zaizkien eskakizunekin.

## BIGARREN MAILAKOA

Euskarak zertarako balio duen, hor dago gakoa. Izan ere, zalantzaurrean, balio duena beti da gaztelerazkoa; hala



DANI BLANCO

## Etsipena dago: Franco hiltzear zeneko eraberritze ilusioari ez zaio behar bezalako erantzunik eman

kontatu dute Gurrutxagak eta Izagirrek. Hainbat lan-deialdietako oinarri eta antzerako dokumentu ofizialak aipatu dituzte: zalantza, hanka sartze edo datu kontrajarriren baten aurrean, balioa duena gaztelerazko bertsioa izan ohi da. Eta hori ez da soilik erreklamazio baten aurrean administrazioko langileak ematen duen erantzuna, hitzez hitz hala bai-

tiote dokumentuek berberak ere. Alegia, "berdin zaigu euskarazkoa gaizki eginda ere; egite hutsak badirudi nahikoa suposatzen diela batzuei".

Pentsatu eta sortu ere gazteleraz egin ohi da, eta hura itzultzen da euskarara. Hori, noski, itzultzeko hautua egiten bada. Eta itzultzekotan ere, baliorik ez bazaio ematen, edo akatsak egiteak hainbeste axola ez badu, zertarako bidali enkargua itzultzaileari, aski bada sareko erreminten bidez egitea? Non geratzen da, beraz, euskal itzultzaileen lana? Eta lelo horiek euskaraz sortzeko ez al dago inor? Imajinatuko genuke euskaraz sortu den testua gaztelerara itzultzaile automatikoarekin pasatzea eta emaitza ez birpasatzea?

Halako galderei erantzuna bilatzean, honela laburbildu du Izagirrek: "Euskara ez dago zirkuito ekonomikoan. Ez gaituzte nahi, bistan da". Lanarteak, makina bat ahots barnebildu dituen liburua eskuan, eztabaida kolektiborako bidea urratu nahi du berandu izan aurretik. ●

BABESLEA:







LIBURUA

# Izarrek liluraturik



**IZAR SALTZAILEA**  
**ENEKO BIDEGAIN (TESTUA),**  
**ANNE BASKARAN**  
**(ILUSTRAZIOAK)**

IKAS, 2022

XABIER ETXANIZ ERLE

**B**itxi bat da esku artean dugun album hau. Berezia da Ikas argitaletxeak eskaintzen digulako, ohi bezala, oso prezio onean; are bereziago Eneko Bidegainen eta Anne Baskaranen lehen lana delako haurrentzat (horrela dela uste dut nik behintzat), eta bitxia eta berezia kontatzen digun istorioagatik eta kontatzeko moduagatik.

“Xuban zerura begira egoten zen, orenak eta orenak”. Horrela abiatzen da izarrak gai nagusi dituen istorioa. “Izarrek liluraturik, ameslari” egon ohi zen Xuban eta horrela bururatu zitzaion sosak irabazteko modua: izarrak harripatzea eta saltzea.

Idea horretatik abiatuta, gizakion jokabidearekin, dirua eta desioaren nahiak bultzatuta gure ingurua nola honda dezakegun ageri zaigu liburu

eder honetan. Izan ere, Xubanez izar guztiak salduko ditu, eta horrek hainbat eta hainbat arazo sortarazi dizkie izar gehiago nahi dituztenei edo izarrak dituztenei. Baina baita izarrei berriei ere; izan ere, elkarren argitasunari esker egiten dute argi baina, banaka, sakabanaturik, hiltzen eta itzaltzen joango dira.


Anne Baskaran ezaguna da zenbait kolaborazio egin dituelako aldizkari edo egunkarietan (*Berriako Mantangorri* gehigarrian ari da aspaldi honetan) eta bere kolore pasteekin, pertsonen aurpegiaren detaileekin, paisaia zabalekin... gozotasuna eta errealismoa islatzen ditu, biak batera.

*Izar saltzailea* liburuak naturaren defentsaz dihardu, planetan ari garenaz gogoeta egiteko moduko lana dugu,

baina hori guztia kontakizun atsegin eta gozo baten bitartez azaltzen zaigu; idazkera eta ilustrazio landuaz, erakargarri eta, era berean, kezkatuak uzten gaituen obra da.


Izarrak zeruan egotetik desagertzeko zorian egotera pasatzen dira; gure inguruarekin gertatzen ari den bezala, gure zelaiak, basoak, itsas bazterrak eta mendiak zaindu eta goza ditzakegu; edo une bateko zoriontasuna erdietsiz hondatu betiko. Bidegainek eta Baskaranek, baina, amaiera itxaropentsua eskaintzen digute, gizakion borroka eta elkarlanari esker zeruaz, gure planetaz, gozatzeko aukera eskainita.

Album eder hau, beraz, ez da dirudien bezain sinplea, eta bada dirudien bezain eder eta irakurgarri/kontagarrria. ●



## MUSIKA

# Iragan posibleak, Haizetxetik



UNAI PELAYO



**HAIZETXE**  
**ALBERTO LIZARRALDE**  
 HEGOAK, 2022

**XALBA RAMIREZ**

**W**alter Benjaminen *Pasagem Werk* ezagutzen? Historiako zabortegean bilatuta, garaia irakurtzeko saiakerarik anbiziotsuena izan zen. Zer geratu zaigu gure historiako zabortegean? Argitaratu gabeko zenbat altxor, zenbat buru isildu, zenbat entzun gabeko ahots?

Zer izan da Euskal Herria? Dena trikiti, dena dantza? Dena tiro, dena lehergailu? Dena rock eta punk? Dena Athletic, dena Real? Historia linealak kontatzen dituzte, etorkizun linealak nahi dituztenak. Baina dirudien arren, historia ez da fosil bat. Etengabeko moldaketa eta berrirakurketan dago garaia.

Landa eremuko Zaldibia borrokalari eta folklorikoaren barrunbean eraiki

zelako musika elektroniko esperimendaleko pieza abangoardista hau. Inoiz ere argitaratu gabea, Alberto Lizarralderen *Haizetxe* dakar Hegoa Diskak-ek, mundu osoarekin konektatuz etxeko goxotasuna. Izan ere iragana ezin da modu linealean irakurri.

Adibidez, 1960ko hamarkadan –Ez dok amairu hasi aurretik– Donostiako Parte Zaharreko lokaletan, gazteek gitarra elektrikoak jotzen zituzten, Beatlesak edo auskalo modako zer imitatzen. Gitarra klasikoa abangoardia izan da gerora, Laboaren eta Iriondoren eskutan. Baina ehun urte lehenago, 1889an Rosario Artola bertsolari donostiarrak gitarrarekin abesten zituen koplak: *Nik guitarcho bat baidet / Maite eta lagun.*

Berrikuntza etengabeko kate bat delako, eta ez eskailera bat.

Historia ez da uste duzuna. Ezta ere uste dudana. Une oro gertatzen direlako gure bizkar, gure itzal, espero ez ditugun gertaerak. Etorkizuna orain gertatzen da, eta etorkizuna iraganean gertatzen da.

Lañarriren egunsenti ederrenak ikusten dira Haizetxetik. Eta naturaren aire sakonetik, mundu osoak ulertuko duen hizkuntzan hitz egin zuen Alberto Lizarralde. Orduan gordeta geratu zen hazia, etorkizunean sustrai eta zuhaitz eta fruitu eta lore izateko. Iraganeko soinu hori aurkezten zaigu gaur, etorkizuna imajinatzeko aukera gisa. ●





# Harribitxi bat

 AMETS ARANGUREN ARRIETA

**E**skerrak denboraz etorri garen. Ez da inor gehiago kabitzen Elizondo-ko Arizkunenea ganbaran eta, esan didatenaren arabera, barruan gaudenak bezainbeste geratu dira kanpoan. Etxean jokutzen du gaur Olaia Inziartek. Etxean eta formatu txikian; erronka bikoitza.

Lekua hartu bezain pronto izan dut *flash* bat hamar bat urte atzera, kontserbatorioko ganbera-taldearekin oholtza hori zapaltzea tokatu zitzaidanekoa (eta bereziki ongi pasa ez nuenekoa). Hirukotean ateratzen da Inziarte ganbarara, Ander Unzaga teklatuan eta pianoan eta Erik Deza gitarran lagun. Ezin izan dut bere lekuan jartzea ekidin eta urduri jarri naiz, baina kantuan hasi eta segituan pentsatu dut: "Deusek ez du huts eginen, fidatzen naiz %100". Gertatu izan zait hori beste batzuekin, baina inoiz ez Inziarte bezain gazte den inorekin. Lehenengo kantua bukatu eta ondoan dudana lagunari begiratu diot, flipatzen ari gara.

Hiruko formatuak dakartzan alde onak probestuta, kantuak lasai azaltzeko eta publikoa hurbil izateko aukera izan du kantariak. Lehenengoarekin bakarrik lortu du bigarrena. Ezinezkoa da Olaia hizketan entzun eta hiru esaldi bota dituelarik norberak bere buruarendako *puta ama* ez pentsatzea. Inposiblea da bere laguna izan nahi ez izatea.

Norbere minei eta besteenei kantatzen die, amatxiri, suizidioari, jakin gabe mintzo direnei eta Laguni, gai sakon eta garrantzitsuenei kantatzeko ez baita egunerokotasunetik urrunegi joan behar. Kolaborazio dezente ditu Inziarteren diskoak, ez da ohikoa izaten lehenengo lan batean. Eta beldur nintzen pixka bat horiek denak nola ekarriko zituen hirukotean oholtzara. Segituan ikusi dut ez duela bere burua baino askoz gehiago behar.

Transmisioaren auzia, periferiak, erreferenteen genealogiak eta hitz lodi horiek guztiak mahai gainean dauden

## OLAIA INZIARTE

**NON:** Arizkunenea (Elizondo)

**NOIZ:** Otsailak 11

honetan, lagun baztandar gazte birekin egin nuen aurreko egunean bidaia bat. Eta esplikatzen zidaten Baztan beti "euskalduntasunarekin" lotua izan bada ere, haiek ez dutela adibidez euren burua euskal musikaren munduan ordezkaturik ikusi orain arte, eta oso pozik zeuden Olaiak zentzu horretan (ere) egiten zuen aportazioagatik. Norbaitek hartzekotan Olaiak hartu behar zuela paper hori. Orain hobeki ulertzen dut zergatik.

Kontzertutik ateratzen da eta ez du ongi jakin zer esan, baina argi izan du azken bizpahiru urteetan ikusi dudana kontzerturik fuertea izan dela. Eta plazer izan da deskubritzea etxetik batera urruti joan gabe ere badela nor miretsi eta norengandik ikasi. Musika eskola-ko garaietatik ez zuen eszenatoki hori ukitzen oronoztarrak, eta gaurkoarekin garai hartako oroitzapen garrantzari agur esan diola kontatu digu. Eta berak bezala, beste batzuek ere bai.

P.D.: Oxala denok Olaia bagina. ●

*Hitz gezidunak*  
Gaia: \* Gipuzkoako ibaiak

|                                        |             |                                  |        |                                                                                   |   |                                 |                   |                                               |                                                   |                                  |                                         |                                         |                   |
|----------------------------------------|-------------|----------------------------------|--------|-----------------------------------------------------------------------------------|---|---------------------------------|-------------------|-----------------------------------------------|---------------------------------------------------|----------------------------------|-----------------------------------------|-----------------------------------------|-------------------|
| *<br>ERORI<br>ADITZAREN<br>INFINITIBOA | ↓           | *<br>BELA-<br>RRIAREN<br>HANTURA | ↓      | KLASKAREN<br>KIDOKO HOTS                                                          | ↓ | EUSKAL<br>HERRIA<br>ARRAIOA!    | ↓                 | SAN MARTIN<br>HERRI<br>NAFARRA<br>JUNTAGAILUA | ↓                                                 | BEREHALA,<br>LASTER<br>*         | ↓                                       | AZKEN<br>PROBA<br>HEDAPEN,<br>ZABALKETA | ↓                 |
| ↓                                      |             | ↓                                |        | LEHENIK<br>GALIOA                                                                 | → | ↓                               |                   | ↓                                             |                                                   | ↓                                |                                         | ↓                                       |                   |
| ITAXUR<br>MAILAKA-<br>TZEA             | →           |                                  |        | ↓                                                                                 |   |                                 | TXITATZEN<br>TONA | →                                             |                                                   |                                  |                                         |                                         |                   |
| ↓                                      |             |                                  |        |                                                                                   |   |                                 | ↓                 |                                               | *<br>DAGO                                         | →                                |                                         |                                         |                   |
| EGUNEROKO<br>JANGAI                    | ETA<br>MOTA | →                                |        |  |   |                                 |                   |                                               | →                                                 |                                  | GALDE<br>PARTIKULA<br>ARDI<br>ZAINZAILA | →                                       |                   |
| ↓                                      | ↓           |                                  | OTAMEN |                                                                                   |   |                                 |                   |                                               | SALDU<br>ADITZAREN<br>INFINITIBOA<br>BOST         | →                                | ↓                                       |                                         | ZENTZURIK<br>GABE |
| NAFARROAKO<br>URTEGIA<br>EGOKI         | →           |                                  | ↓      |                                                                                   |   |                                 |                   |                                               | →                                                 |                                  |                                         |                                         | ↓                 |
| ↓                                      |             | HIDROGENOA<br>TXORI MOTA         | →      |                                                                                   |   |                                 |                   |                                               | DUELA 24<br>ORDU<br>ERRE-<br>PIKATUZ,<br>IRAKITEN | →                                |                                         |                                         |                   |
| ALDERDI<br>KARLISTA<br>*               | →           | ↓                                |        | MAKO,<br>ESEKITOKI<br>ERBIOA                                                      | ↓ | PARE BAT                        | ↓                 | BYTE<br>JABETASUN<br>ATZIZKIA                 | →                                                 | GALDETZAILE<br>GAROA,<br>IRATZEA | →                                       |                                         |                   |
| ↓                                      |             |                                  |        | ↓                                                                                 |   | EMAKU-<br>MEZKO IZENA<br>EZ EME | →                 | ↓                                             |                                                   | ↓                                |                                         | BOKAL<br>BIRIBILA<br>KANPO              | →                 |
| ALDERANTZIZ<br>JABE, NAGUSI            | →           |                                  |        |                                                                                   |   | ↓                               |                   | ESKASAK,<br>MURRITZAK<br>ENERGIA              | →                                                 |                                  |                                         | ↓                                       |                   |
| ↓                                      |             |                                  |        | ERLOJU,<br>ORDULARI                                                               | → |                                 |                   | ↓                                             |                                                   | AURRIZKI:<br>KONTRAKO-<br>TASUNA | →                                       |                                         |                   |

# Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO  
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3  
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 |   | 3 |   | 4 |   | 5 | 6 | 9 |
|   | 9 |   |   |   |   |   |   |   |
| 2 | 4 | 5 | 9 |   | 6 |   |   |   |
| 5 |   |   | 4 |   | 3 |   |   |   |
| 6 |   |   |   | 8 |   |   |   | 7 |
| 9 | 3 | 8 |   | 6 |   |   |   |   |
|   | 6 | 9 |   | 5 | 8 | 2 |   |   |
|   |   |   | 6 | 2 |   |   | 1 |   |
|   |   |   |   | 7 | 9 | 6 | 4 |   |

*5x5*

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA,  
HITZ BERA.

1. Altzo.
2. Bezainbat.
3. Tximino txiki.
4. Aldi jakin baterako janari kopuruak.
5. Lego.

|  |  |  |  |  |
|--|--|--|--|--|
|  |  |  |  |  |
|  |  |  |  |  |
|  |  |  |  |  |
|  |  |  |  |  |
|  |  |  |  |  |

**EBAZPENAK**

**5XS:**  
1. MAGAL  
2. ADINA  
3. GIBOI  
4. ANOAK  
5. LAIKO

|   |   |   |
|---|---|---|
| 5 | 6 | 9 |
| 1 | 8 | 3 |
| 2 | 4 | 7 |
| 3 | 5 | 6 |
| 4 | 1 | 5 |
| 5 | 4 | 3 |
| 6 | 8 | 1 |
| 7 | 9 | 6 |
| 8 | 3 | 2 |
| 9 | 7 | 4 |

|   |   |   |   |  |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|--|---|---|---|---|---|---|---|
| I | L | N | V |  | N | E | O |   | N | V | I |
| K | V | R | I |  | U | R | K | A | R | K | O |
| O |   | A | O |  | D | I | E | A | U | M | U |
| E | R | Z | Z |  | B |   | G |   | E | K | A |
| O | Z | A | T |  |   |   |   |   | H |   | N |
| Z | T | O | R |  |   |   |   |   | S | A | E |
|   | L | S | A |  |   |   |   |   | I | G | O |
| A | L | V | A |  | D |   |   |   | T | A |   |
| V | A | D | E |  | A |   |   |   | I | L | M |
| N | I | T | X |  | T | E | I | N | O | G | I |
| A | Z | B | I |  | E | H | L | E | T | O | E |
| F | F | U |   |  | E |   | K |   | U | O |   |



# Ana Galarraga Aiestaran

ZIENTZIAREN ARTEA



## FRANKESTEIN

Oholtzara igotzeko batere beldurrik gabe, erronka berriari heldu dio Petti bakarlari nafarrarekin batera. Nobela historikoa hizpide harturik, musika-rekin uztartzea lortu du bikote artistikoak. "Harrera beroa egin digute hasieratik. Berezia eta ezberdina da eskaintzen duguna. Galderak, gogoe-tak eta planteamenduak proposatzen ditugu, pentsatzeko gakoak jaurti eta hortik gogoeta dezala norberak". Kultura eta artearen bidez sentimenduak lantzea ederra da. 2022an egin zuten estreinaldia, eta urte hau oparoa izatea espero du. Galarragak ez du ez irrik ez ilusiorik galtzen mikrofonoaren atzean zein oholtzaren gainean.

"Euskarak ere terminologia berriak bere egin behar ditu, gainontzeko hizkuntzek bezala"

Pantaila eta mikrofonoaren beste aldetik entzuten dugu sarri, zientziaz orokorrean edota aktualitate zientifikoaz mintzo. Askorentzat ulertzeko zaila den hori errazago ulertu dadin egiten du lan Galarragak. Jendartearen zati handi batek zientziari errezelo begiratzen diola jakitun, aurreiritziak albo batera uzteko gomendatzen du, egunerokoaren parte baita zientzia. Ohartzen ez bagara ere, gurekin dago une oro. Informazioa boterea den bezala, zientzia ere boterea dela dio. "Frankenstein" emanaldia ere sortu du Petti bakarlariarekin batera.

 AITZIBER ZAPIRAIN ETXANIZ  DANI BLANCO

### Nola hasi zinen Elhuyarren?

Aurretik albaitaritza ikasi nuen Zaragozan, eta Elikagaien Zientzia ondoren, Gasteizen. Lan txikiak egin nituen han eta hemen, baina ez nengibilen gustura. Elhuyarrek beka bat atera zuen zientzia dibulgazioan aritzeko, eta bertara aurkeztu nintzen. Hemen segitzen dut geroztik. Betidanik maite izan dut irakurtzea, idaztea eta hitz egitea. Horregatik, uste dut nire zaletasunak erabat uztartzen dituen lanpostua dudala gaur egun.

### Zientzia komunikatzaile erreferentea zara egun.

Kostata, baina uste dut emakumeok ere ari garela erreferentzia irabazten. Zaila da sistemak berak jartzen digun zama gainetik kentzea. Lotsak, dudak, ustezko gaitasun faltak... Ahalduntze prozesu luzea izan ohi da, baina zorionez, geroz eta emakume gehiago garela esango nuke.

Unean bertan gertatzen ari denaz jarduten dut, gaurkotasunari oso loturiko gaiak jorratzen ditut.

Dena oso azkar doa eta gertatzen dena ulertzea ezinbestekoa da gure iritziz. Zientzia arloan ere momentuan dauden beharrei erantzuteko gai izan behar dugu euskaldun gisa.

### Zientziaz eta euskaraz, erronka bikoitza?

Zientziari buruz jarduteak duen zailena da jendeari aurreiritziak kentzea. Badakit zientzia konplexua dela, ekonomia eta politika bezala. Aurreiritziak gainditu eta ulergarriak izatea da gure erronka. Kontu bitxiak azaldu baino, errealtatea ulertzeko gakoak ematen ditugu. Zientzia ere informazioa da. Informazioa boterea den heinean, zientzia ulertzea ere bada informazioaren boterea edukitzea. Garrantzitsua da zientzia eta teknologia ulertzea, are gehiago egungo gizarte eremuan. Eta euskaraz delako egiten dut nire lana plazer handiz.

### Terminologia nola lantzen duzue?



"Zientziak babes ekonomikoa behar du. Indar berezi bat egin behar da mundu mailan, jendarte osoaren onurarako izan dadin ikerturiko oro".

Erabakiak hartu behar izaten ditugu oso maiz, eta unibertsitateekin zein Euskaltzaindiarekin jarduten dugu. Euskarak ere terminologia berriak bere egin behar ditu gainontzeko hizkuntzek bezala. Zorionez, dagoeneko asko dira gureganatu ditugun hitzak. "Neandertalak", esate baterako, lehen 'h'-rekin idazten genuen: "neanderthalak". Eta 'h'-a kentzeko apustua egin genuen, jatorrizko izena eraldatuz. Euskara ez baitago mundutik at, eta bilakaerak ditu, gainontzeko hizkuntzek bezala. Badu aski legitimitate eta prestigio halako erabakiak hartzeko. Bestela arrotzak egiten zaizkigu eta ez ditugu azkenean erabat gure egingo.

### Zertan dago zientzia gaur egun?

Emaitza edo lorpen ekonomikoak ematen dituen hori aztertzen ari dira ikerlariak. Hor egiten dira inbertsioak. Osasunarekin edota energiarekin oso loturik daude gaur egungo ikerketak. Finantziatzioa jasotzen dute, azken batean Mendebaldeko gizon zuri heterosexual familia buruarentzat interesgarriak direlako.

Lortuko den emaitza ordaindu dezakeenari egiten dio mesede ikerketak. Zientziaren abiapuntua ordea, jakin-mina eta ezagutza dira.

Zorionez, aipaturiko korrante nagusi horretatik kanpo oinarritzko zientzia ere egiten da, baina ez da gehiengo. Zientziak babes ekonomikoa behar du. Euskal Herrian ere ikertzen da, unibertsitatean eta zentro espezializatuetan. Esango nuke indar berezi bat egin behar dela mundu mailan, jendarte osoaren onurarako izan dadin ikerturiko oro.

### Zientzia bai eta kultura ere bai; eta orain *Frankenstein*?

Literatur zale amorratua naiz txikitatik. Pandemia garaian ordea, etxetik atera ezin genuen aro horretan, etxean nituen liburueta jo nuen. Eta Mary Shelleyren *Frankenstein* esku artean nuela, Pettik *Manipulazio Estrategiak* kaleratu zuen. Entzun nuen aldi oro, nobelaz gogoratzen nintzen. Jendartean erabiltzen diren manipulazio estrategiak, etika, morala... baitituzte bi lanek hizpide. Pettirekin harremanetan jarri nintzen, nire

burutazio eta sentsazioak azaleratzeko. Handik gutxira, (H)ilbeltzan parte hartzeko proposamena egin zioten berari eta hark niri bota zidan amua. Hitzordu ezin hobea zelakoan, bion arteko lana uztartzeko eta hala *Frankenstein* plazaartzeko. Eta hori egin genuen. Ume txiki baten ilusioarekin igo nintzen lehen aldiz oholtzara. Konfiantza itsuarekin, emaitza nolakoa izanen zen jakin gabe, eta zoragarria izan zen esperientzia. Baita jendeak ondoren esan ziguna ere.

### Oholtzan mikrofono atzean bezain gustura?

Bai, oso gustura. Asko gustatzen zait. Antzerkia ere egin izan dut Zarautzen. Esperimentaziorako diziplina paregabea dela esango nuke. Niri askatasun sentsazioa piztu izan dit.

Ez dut inoiz asmo berezirik izan ohol-tza gaineko kontuekin. Baina suertatu egin da. Eta deitzen gaituzten lekuetara joaten gara pozik. Antzerkian, musika dantza, testua... Nahi dena integratu daiteke. Guk momentuz musika eta testua uztartu ditugu. ●



# Norbait dabil zu seduzitu nahian

**S**umatu duzue usain hori? Ah, lurrin burtzoragarriagorik. Hildakoak ere piztuko lituzke martxoan sartzearekin batera gure kaleak eta plazak, Euskal Erdiko mendi eta itsaso bazterrak blaitu dituen perfumeak. Sudurretik ez ezik, begietatik eta belarrietatik ere sartzen da, aski duzu muturraren aurrean periodiko ofizialetako bat jartzea edo belarri betean politikari autonomikoen adierazpenak entzutea: *eau de parfum* edo *eau de toilette*, udaberria baino lehen iritsi da hauteskunde-kanpainaurrea.

Animalia politikoez gutxitan izaten dute aukera beren espeziearen iraupena bermatzera deituta dauden hautesleak estaltzeko eta, hortaz, ulertu behar dira euren portaera batzuk. Are gehiago kontuan izanda, hauteskunde bidezko ugalketa gauzatzeko metodoa koito oso labur bat bada ere –botoa, frist, sartu; eta ikusi bazaitut, ez noroit–, aurreko sedukzio-dantza gertakizun ikaragarri konplexua dela. Hautagaiek konbentzitu behar gaituzte lau urtez misiolari aspergarriak aguantatu ondoren –hori ere asko jota, espresioaren bi zentzuetan–, oraingoan *Kama-Sutra* ondo irakurrita datozela. Erritual horretan, kanpainaurre garaia momentu delikatu da oso. Iradoki egin behar baita, baina ez guztiz erakutsi –horretarako baitago kanpaina bera, dena airean zingulu-zangulu ibiltzeko–.

Lehen urrats zail horiek emateko, ordea, badaude aplikazioak. EAEn, edozein hauteskunde datorrenean, Vocentoko egunkariak bihurtzen dira boto-emaileen *match* egiteko Tinder moduko bat. Eta badirudi Arnaldo Otegi zukua atera nahi diola, aurrekoan petxu aldeko botoi pare bat askatu baitzituen *El Diario Vasco*-n, disimuluan bezala, PSEren paktatuko lukeela esanez. Inpresioa daukat jokaldiaren muina gehiago dela Espainiako Gobernuaren politika progresistekin identifikatzen den boto-emailea



limurtzea; baina auskalo, Txillarren Egi-gurenekin bizi izandako erromantze haren *revival* bat egiteko gogoia ere egon daiteke tartean, iraganeko amodioek beti uzten dute arrastoa.

Kontrako estrategiaren parte dirudi Joseba Egibarrek handik astebetera utzitako titularrak: “Euskal politika espainoltzen ari da”. Euzko lurtean zutunik, GBBko burua ikusi dugu ETB2ko albiste-gien deriba kritikatzeko eta dena. Gogorra izan behar du, kate horretako ardura-dunekin partekatzen baitu jokoa, seta eta partidua; eta, klaro, berak nahiago luke Intxortan gudariekin, ezta? Baina ez, ateraldi horrek ere badu sedukzio-estrategiatik. EH Bilduren eta EAJren artean aukeratu behar duenean zalantza metafisikoak dauzkan boto-emaile euskaldun jator eta bizimodu eroso samarreko horri belarrira zerbait oso konkretua xuxurlatzen dio: “Utikan horien zergak: gurea, ikurriña”.

Eneko Andueza izan da Alberto Surio-ren grabagailu aurretik pasatzen azkena eta garbi utzi du besteen ligan jokatu nahi duela: maiatzetik aurrera EAJk eta EH Bilduk martxan jar dezaketen fronte subiranistaz hitz egin du, baita PSEren lidergoaz ere, zientzia-fikzioa ere erabil baitaiteke udal eta foru hauteskunde batzuk pixka bat alaitzeko, noski baietz. Ostera ere, lerro artean irakurri behar: merkatu berriren bat agertzen ez den bitartean, Espainian gustura dagoen boto-emailea kontsolidatzea da PSEren helburua inondik ere.

Beraz, laburbilduz, kanpainaurrean hitz egin da EH Bildu-PSE paktuaz; espainolismoa konfrontatzen duen EAJ batez; eta jeltzaleen eta EH Bilduren arteko fronte subiranista geldiarazi beharraz. Ez al zaizue iruditzen gauzak oso gaizki egon behar duela politika instituzionalen, botoak bilatzeko existituko ez diren gauzez jardun behar baldin bada? ●



Prezioa **28,00 €**

Bidalketa gastuak **5€**. Bidalketa  
doan **40€**-tik gorako erosketetan.  
Erosketak **BIZUM** bidez ordaindu daitezke.

**azoka.argia.eus** (+34) **943 37 15 45**



LOS NUEVOS

2023.03.04

2023.06.04

BERRIAK

ERAKUSKETA SAN TELMO MUSEOA



BERRIAK

LOS NUEVOS

ANTOLATZAILEA

**STM**  
San Telmo Museoa

 **DONOSTIA**  
SAN SEBASTIAN

 **donostia**  
kultura

ERAKUNDE BABESLEAK

**EUSKO JAURLARITZA**

KULTURA ETA HEZKUNTZA  
POLITIKA SAILA



**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Kultura, Lanbideetza, Gazteria  
eta Kirol Departamentua



**ETORKIZUNA**  
ORAIN